2025-02-28 BARIKUA / 1.013. ZENBAKIA / 23. URTEA
DURANGALDEKO ASTEKARIA ANBOTO.ORG TOKIKOM

# anboto

*Lekuan lekuko.*



# MARTXOAK 8

OINARRIZKO MAILA
MARTXOAK 12
17:30 etan
Elektrizitatea
Elementu Metalikoen Fabrikazioa

ERDI MAILA
Administrazio Kudeaketa
Instalazio Elektriko eta Automatikoak
Mekanizazioa
Bizikletan Espezializazioa

GOI MAILAK
Administrazioa eta Finantzak
Sare-Informatika Sistemen Admin.
Sist. Elektroteknikoak Automatizatuak
Automatizazioa eta Robotika Industriala
Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

MASTERRA
Zibersegurtasuna IT-n
MARTXOAK 26
17:30 etan
946810058

LANBIDE HEZIKETA
izena emon
www.maristak.com

BIZI maristak
ATE IREKIAK
Oinarrizko-Erdi Maila
Bizikleta
Goi Maila
Zibersegurtasuna
17:30 etan



Durangoko Euskaraldiaren enbaxadoreak.

# Euskara hauspotzeko hamaika enbaxadore

Durangoko Euskaraldiak bere hamaikakoa aurkeztu du. Maiatzaren 15a ailegatu bitartean, hamaika kide horiek herritarrak euskara erabiltzera gonbidatuko dituzte. Maiatzaren 15etik 25era ere, berdin, Euskaraldia martxan egongo den egunetan

**Ekaitz Herrera** DURANGO
Batzuek berba-jario izugarria dute, beste batzuk ikasten dabiltza, baina guzti-guztiek dute helburu bera: Durangoko kaleetan euskararen kale erabilera bultzatzea eta herritarrak ahobizi eta belarriprest lanetan ipintzea. Durangoko Euskaraldiak bere hamaikakoa aurkeztu zuen joan zen astean, San Agustin Kulturguneko sarreran. Aretoko ataria goraino bete zen euskaltzalez eta eragileetako ordezkariz. "Euskaraldiaren bitartez, euskararen erabilera aktibatuko duen mugimendua sortu gura dugu, kaleko euskalgintza, euskaldun eta euskaltzaleak mugiaraztea, hain zuzen ere. Durangon eta Euskal Herri osoan euskararen erabilera aktibatzeko prest dagoen jendea batu, trebatu, antolatu eta dinamika soziala bihurtu gura dugu. Milaka eta milaka herritarrek aldi berean Senperen, Lizarran, Bilbon eta Durangon euskararen aldeko urratsa ematea hunkigarria da eta ilusioa pizten du", azaldu zuten Euskaraldiko antolatzaileek ekitaldian. Alde horretatik, Euskaraldiak iraungo duen hamaika egunetan, paparrean *ahobizi* eta *belarriprest* txapak ipintzera deitu zituzten herritarrak. Egitasmoan parte hartu gura dutenek martxotik aurrera eman dezakete izena.

**Hamaikako konprometitua**

Durangoko hamaikakoa osatzen duten kideak honako hauek dira: Helena Barrenetxea Fernández zestalaria, Julen Bengoa Meabe Geu Be elkarteko kidea, Katalin Garaita Zurikarai kazetaria, Usue Egia Fernández de Retana ilustratzailea, Elena Olave Duñabeitia idazlea, Gorka Madrazo Ortuzar euskalgintzako aktorea, Urdaspal Alberdi Uria lehen sektoreko ekoizlea, Jose Moya ostalaria, Hilario Pérez Meñica hainbat kirol eta kultur elkartetako kidea, Jheimy Fernanda Lopez udal euskaltegiko eta bikote linguistikoetako ikaslea, eta Marisa Barrena Larruzea aktibista soziala.

## Alpinok Baqueira Bereterako irteera antolatu du, martxoaren 7rako


Alpino-Tabiraren eski irteera bat.

**Irati Otadui** DURANGO
Alpino-Tabira mendi taldeak Baqueira Beretera joateko irteera antolatu du martxoaren 7rako. Parte hartzaileek pista eskia, zeharkaldiko eskia, iraupen eskia eta abar egiteko aukera izango dute. Bazkideek otsailaren 27an izan zuten izena emateko aukera; gainerakoek martxoaren 4an eta 6an, klubaren bulegoan. Aurrera begira, beste egitasmo bi antolatu dituzte: nerabeentzako eski ikastaroa eta asteburu-pasa Europako Mendietan.

## Albainako ikasleek saria lortu dute First Lego League sariketan

Bigarren saria lortu zuten 'Robotaren portaera' deituriko atalean. Txapelketa Gasteizen jokatu zen, zapatuan

**Ekaitz Herrera** DURANGO
Albaina informatika akademiako ikasleek sari bat lortu dute First Lego League deituriko txapelketan. Sariketan, parte hartzaileek robotak muntatu behar izaten dituzte *lego* piezekin, eta lehiaketako irizpideetan markaturiko zereginak eta erronkak gauzatu behar izan dituzte robotagaz. Albainako kideek bigarren saria lortu zuten *Robotaren portaera* deituriko kategorian. Txapelketa Gasteizen jokatu zuten, joan zen zapatuan. "Txapelketan hiru atal puntuatzen dira. Proposatzen den gaiari emandako erantzuna, baloreak eta taula batean egin beharreko programazioak, eta misioak", azaldu du Iñigo Garatek, saria irabazi duen ikasleetariko baten aitak. "Minutu bi eta erdiko probak izaten dira, taldeka erantzun beharrekoak", gaineratu du. Albainako ikasleak 250 eurogaz bueltatu ziren Gasteiztik. Txapelketa EHUko Kirol Fakultatean jokatu zuten.



Albainako kide sarituak. IÑIGO GARATE

Ez da Albainako kideek First Lego Leaguen irabazten duten lehenengo aldia. Iaz *Etorkizun Oparoko Gazteen saria* irabazi zuten, Donostiako sariketan.

## Landako Gunea kongresuen sarean sartzeko lankidetza

**E.H.** DURANGO
Durangoko Udalak eta BEC Bilbao Exhibition Center erakundeko kideek lankidetza hasi dute Landako Gunea "Euskadiko kongresu eta azoken sarean integratzeko" helburuz. Durangoko Udalak azaldu duenez, lankidetza horregaz "baliabide eta aukera berriak" eman gura dizkiete eraikinari, industria-enpresentzat, tokiko elkarteentzat eta ekitaldien antolatzaileentzat "erakargarriagoa" izan dadin. Era berean, Landako Guneak "euskarazko kulturaren egoitza legez duen posizionamendua indartzea" gura du udalak, "Durangoko Azokatik harago". Kultur egitasmo berriak sortu eta erakarri gura dituzte horretarako, eta "programazioa dibertsifikatua" eskaini, urte osoan zehar kultur jarduerak egon daitezen. Mireia Elkoroiribe alkatea eta Paule Sanchez kultura zinegotzia BECeko Xabier Basañez zuzendariagaz batu ziren joan zen astean, Barakaldon.



## Txintxaun berriak ipini dituzte Durangoko Ibaizabal parkean

Durangoko Udalak jolasgune berria atondu du Ibaizabalen 2tik 14 urtera arteko haurrentzat. Eremuan jolas inklusiboak ipini dituzte: egokituriko kulunka bat, *bowl* birakari bat eta elkarlanean jolasteko sare bat, besteak beste. Jolasgunea 155 metro karratu zabal da, eta LED farolak eta paperontzia ditu inguruan. Udalak 63.830 euroko inbertsioa egin du.

# "Aldarri independentista erdigunean ipini gura dugu"

Ernai antolakundea Independentziara Egunak egiten dabil Euskal Herrian zehar; 75 herri baino gehiagotan egingo dituzte; gaur, otsailak 28, Durangon egingo dute, eta martxoaren 22an Elorrion; Zornotzan eta Zaldibarren egin dituzte jada

**Aritz Maldonado** DURANGO

Ernai gazte antolakundea Independentziara Egunak antolatzen dabil 75 herri baino gehiagotan. Andu Arrieta eta Maddi Aurtenetxe Ernaiko kideak dira.

**Zelan joan dira orain artean egindako Independentziara Egunak?**

**Maddi Aurtenetxe:** Zornotzako eta Zaldibarko Independentziara Egunak oso egokitzat jo ditugu, gazte mordoa batu ginelako.

**Andu Arrieta:** Aukera ona dira herrietako gazte independentistak batzeko, baita aldarri independentista erdigunean ipintzeko ere. Zapalkuntzarik bako Euskal Herriaren alde gauden gazteon arteko saretze bat egotea ere bada gure asmoa.


Andu Arrieta eta Maddi Aurtenetxe.

**M. A.:** Ikusten dugu gazteen artean badagoela interes bat independentziari buruz informatzeko, eta gero etorri daitekeenari buruz gogoeta egin gura dugu.

**Ernai osasuntsu dago?**

**M. A.:** Durangaldean indar handia dugula esango genuke, eta geroago eta gazte gehiagorengana ailegatzen garela. Geroago eta gazte gehiagok partekatzen dituzte gure ideiak, eta prest daude gure komunitateko kide izateko.

**A. A.:** Zornotzako Independentziara Egunean jende asko batu zen, eta Ernaik babes bat duela erakutsi zen bertan.

**Ernaik 'Gazteon eskutik, independentziara!' antolatu du Berriozarren, apirilaren 17tik 20rako.**

**A. A.:** Topagunea Euskal Herriko hainbat jende batzeko unea da, eta indar erakustaldia egiteko ere bai. Berbaldiak egongo dira, ekitaldiak, eta musika ere bai.

**M. A.:** Independentziara Egunen dinamika topagunea aurkezteko aprobetxatzen ere bagabiltza, gazteak Berriozarrera joatera animatzeko.


Konponketak Olazarren. ZALDIBARKO UDALA

## Hobekuntzak Olazarko zelaian

**E.H.** ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak hainbat jarduketa hasi du Olazarko zelaiko pasealekua hobetzeko. Pasealekuko hainbat gune egoera kaskarrean egon da, eta, udalak zehaztu duenez, zuloak egon dira hainbat eremutan. Hori dela eta, lanak hasi dituzte eremua egokitzeko. Udalak 7.500 euro erabiliko ditu konponketak egiteko.




LOKALIA
Dena tokiko merkataritzarako.
Dena tokiko merkataritzarentzat.
laboralkutxa.com/eu/lokalia

LABORAL Kutxan geure aletxoa ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

**LOKALIA** laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.

LABORAL kutxa

# Asuntzek mendi erronka antolatu du, lehenengoz

Mendirako zaletasuna bultzatu eta Atxondo ingurua ezagutarazteko helburuagaz, Asuntze mendi taldeak ekimen berri bat hasi du: Mendi Erronka. Erronka amaitzen dutenekin sari banaketa eta argazkien proiekzioa egingo dute azaroan

**J.D.** ATXONDO

Mendizaletasuna bultzatzeko helburuagaz, Atxondoko Asuntze mendi taldeak ekimen berri bat hasiko du: Mendi Erronka. Nork bere kontura, lagunekin eta familian egiteko moduko lau irteera proposatu dituzte, epe jakin baten barruan egin beharrekoak. Erronkan parte hartu gura dutenek *asuntzemk@hotmail.com* helbide elektronikora bidali beharko dituzte proposaturiko toki eta tontorretan egindako argazkiak. Argazkietan agertzen direnen izen-abizenak idatzi behar ditute. Lau erronkak betetzen dituztenekin, sari banaketa eta bidalitako argazkien bideo proiekzioa egingo dituzte aurtengo azaroan, mendi taldekoek jakinarazi dutenez.



Irteera bat Atxondo eta Elorrio udalerriak batzen dituen Memaia tontorrera da.

Ekimena Atxondo inguruko mendiak eta toki esanguratsuak ezagutarazteko baliatuko dute. Horrela, proposaturiko irteera guztiak herri inguruan dira. Martxoaren 1etik apirilaren 1era, irteera kurioso bat proposatu dute. Atxondon, 'Valle Achondo' izena idatzita duen pago bat dago. Berezitasuna honako hau da: Atxondo herri lez sortu aurretik idatzitakoa dela, 1940ko hamarkadaren amaiera aldera. Maiatz-ekainerako Memaiara irteera proposatu dute; uztail-abuztuan Larranora, eta irail-urrian Tellamendira.

**Irteerak Asuntzegaz**

Ibilbideak Asuntzegaz taldean egiteko aukera ere badago. Martxoan, Iñigo Mendibilegaz herria ezagutzeko aukera egongo da eta aipaturiko pagora joango dira. Ekainean, Axpeko eta Apatako jaietako mendi martxa egingo dute Memaiara, eta irailean Tellamendira joango dira, Besaideko Oroimen Egunaren barruan.

## Erronkaren egutegia

NORK BERE KONTURA EGITEKO

**Martxoak 1- apirilak 30**
• 'Valle Achondo' ipintzen duen pagora irteera.
**Maiatzak 1-ekainak 30**
• Memaia
**Uztailak 1-abuztuak 31**
• Larrano
**Irailak 1-urriak 31**
• Tellamendi

ASUNTZEGAZ BATERA EGITEKO

**Martxoak 16**
• 'Valle Achondo' ipintzen duen pagora irteera, Iñigo Mendibilegaz
**Ekainak 22**
• Memaia
**Uztailak 5-6**
• Asteburuko irteera
**Irailak 21**
• Oroimen eguna Besaiden: Tellamendi

# Aurten ere Sasiberezi eta bere lagunak protagonista

Iaz, Sasiberezi pozik geratu zen inauterietan Mañariko herrigunera egindako bisitagaz, eta aurten errepikatu egingo du. Tostadak egiteko, esnea ekarriko du lagun dituen aurpegi beltzekin. Mozolo maltzurra eta bere aliatuak zain izango ditu esnea osteko



Sasiberezi eta bere aurkaria den mozolo.

**J.D.** MAÑARIA

Iazkoa estreinaldiaren ondoren, Sasiberezik eta bere lagunek aurten ere Mañariko herrigunea bisitatuko dute karnabaletan. Zapatu honetan izango da. Kafraga eta Mugarra Ateneo Cinegético elkarteek egun osoko jaia antolatu dute biharko, eta Sasibereziri eta bere lagunei ongietorria egingo diete 18:30ean. Kalerik kale ibiliko dira eta mozolo maltzurrari eta bere jarraitzaileei iskin egitea lortzen badute, Sasiberezik ekarritako esneagaz egindako tostadak jango dituzte herritarrek. Ekimenak harrera ona izan zuen iaz, eta aurten berriro egitea erabaki dute.

**Herri bazkaria**

Sasibereziren bisitaz gainera, biharko egunak beste osagai batzuk ere izango ditu. 13:00etan, trikitilariekin hasiko dute eguna. Ondoren, aurtengo nobedade lez, herri bazkaria egingo dute frontoian. Bazkalostean, askotariko jolasetan parte hartzeko aukera egongo da.



Izurtzako frontoia.

## Datorren astean sarea aldatuko dute Izurtzako frontoian

Aurtengo aurrekontuetan aurreikusitako inbertsioa da. Sareagaz batera, txapa azpiko olana ere aldatuko dute

**J.D.** IZURTZA

Izurtzako Udalak pilotalekuko sarea aldatuko du. Datorren astelehenean hasiko dituzte lanak, eta aste horretan bertan amaitzea aurreikusten dute. Urteetako erabileragaz sarea zaharkituta geratu delako eta bere funtzioa ondo betetzen ez zuelako erabaki dute aldatzea. Horregaz batera, arrazoi berdinagaitik, txaparen azpiko olana ere aldatuko dute. Lan guztiek 15.300 euroko aurrekontua dute. Lanek irauten duten bitartean, ezingo da pilotalekua erabili, udal ordezkarien esan dutenez.

# OSTALARITZA GIDA



IURRETA

## GAUARGI



**Dantzari, 4 behea**
**Tel.: 944 356 674**

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

**@gauargitaberna**

ZORNOTZA

## XIBERU



**Zezilia Gallartzagoitia, 9**
**Tel.: 946 181 758**

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak asteburuero. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

**Xiberu Taberna**

**@xiberutaberna**

DURANGO

## BASA Eroateko janaria



**Untzillatx, 9**
**Tel.: 747 421 104**

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

**@basa.durango**

DURANGO

## OLAJAUREGI



**Kurutziaga, 52**
**Tel.: 946 200 864**

Eguerdian asteazkenetik igandera
(13:00-15:30)
-Eguneko menua 19,90€
-Dastatzeko menua 45 €
-Karta
Gauean ostegunetik larunbatera
(20:00-22:30)
-Mokadu karta
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

**Hotel Olajauregi**

**@hotel_olajauregi_jatetxea**

# Segurtasun zaindari bat jipoitu dute Zornotzan

CCOO sindikatuak salatu du Zornotzako tren geralekuan segurtasun zaindari bat jipoitu dutela; gertakariak astelehenean izan ziren eta langilea Usansoloko (Bizkaia) ospitalera eraman behar izan zuten; buruan kolpe ugari jaso zuela salatu dute

**Ekaitz Herrera** ZORNOTZA

Astelehenean Zornotzako tren geralekuan segurtasun zaindari bat jipoitu zutela salatu du CCOOk. Sindikatuaren esanetan, gazte bi trenera ordaindu barik sartzen ahalegindu ziren. Segurtasun zaindariak gazteak ikusi eta geldiarazi egin zituen: "Zaindariak txarteldegitik igaro behar zutela adierazi zien gazte biei. Gazteek jaramonik egiten ez ziotela ikusita, langileak Ertzaintzari deitu zion. Gazte biak atxiki bitartean, euretariko batek ihes egin zuen; zaindariari aurre egiten hasi zen bestea. Deskuidu batean, gazteak zaindariaren borra hartu, eta langilea buruan kolpatzeari ekin zion, hark konortea galdu zuen arte", azaldu du CCOOk ohar baten bitartez. Ondoren, gazteak ihes egin zuela jakinarazi dute.

Ertzaintza ailegatu zenean, larrialdi zerbitzuek Usansoloko ospitalera eraman zuten segurtasun zaindaria. Buruan hainbat kolpe zuela eta eskumako begitik lauso ikusten zuela ere jakinarazi du CCOOk.



Zornotzako geralekua.

Sindikatuak adierazi duenez, horrelako zaintza zerbitzuak "binaka" egin behar lirateke, "segurtasun zaindarien, Euskotreneko langileen eta zerbitzua erabiltzen dutenen osasuna arriskuan ipintzen delako bestela". Beraz, CCOOk babes neurri gehiago eskatu dio zaintza zerbitzuaz arduratzen den enpresa kontratatuari. Era berean, tren geltokietan segurtasun langile eta neurri gehiago ipintzea eskatuko du.



Jon Artabe zinegotzia, Ainhoa Salterain alkatea eta Alicia Hernandez zinegotzia.

# Zornotzako Udalak Martxoaren 8ko egitaraua aurkeztu du

Zornotzako Udalak antolatu duen egitarauak kultur eta aisialdi jarduerak eta ekitaldi instituzionala batzen ditu

**Aritz Maldonado** ZORNOTZA

Zornotzako Udalak askotariko egitaraua prestatu du Martxoaren 8aren harira. Horrela, erakusketak, berbaldiak, zinema-saioak, topaketak eta kultur jarduerak egingo dituzte datozen egunetan. Ainhoa Salterain alkatearen berbetan, ekintza hauen helburua herritarrak berdintasunaren aldeko urratsak ematearen garrantziaz sentsibilizatzea da. "Martxoaren 8a ez da egutegian agertzen den data soil bat. Orain arteko urratsak aitortzeko ez ezik, oraindino ere gainditu beharreko erronkez jabetzeko ezinbesteko hitzordua ere bada", azaldu zuen eguazteneko prentsaurrekoan.

Horrela, besteak beste, Zelaietako erakusketa gelan *Emakumeak eta euskal komikigintza* erakusketa ikusgai egongo da martxoaren 11ra arte.

**Alaiak korala**

Martxoaren 8an, elkarretaratzea eta adierazpen instituzionala egiteaz gainera, Marixelarre sariaren ekitaldia ere egingo dute. 13:00etan izango da, herriko plazan; bertan, Alaiak koralaren 40 urteko ibilbidea goraipatu eta sarituko dute.

# Elorrioko auzo-taxia erabiltzeko izen ematerako epea, zabalik

Iazko erabiltzaileek automatikoki jarraitu dezakete, baina berriek ezinbestean eman behar dute izena


Artxiboko irudia.

**Irati Otadui** ELORRIO

Elorrioko Udalak auzo-taxi zerbitzua eskaintzen jarraituko du. 2012an ekin zion zerbitzu hau eskaintzeari, batez ere, egoera zaurgarrian dauden herritarrei (adinekoei, desgaitasunen bat dutenei eta aldi baterako mugikortasun murriztua dutenei) laguntzeko helburuagaz. Hala ere, udalerriko "kanpoaldeko auzoetan" bizi diren elorriarrek ere erabili dezaketela zehaztu du udalak. Egoera zaurgarrian dauden herritarrek 2,5 euro ordainduko dute bidaiako, eta gainerakoek 4; bidaiaren gainerako kostua udalak hartuko du bere gain. Iazko erabiltzaileei automatikoki berriztuko zaie erabiltzaile estatusa, baina erabiltzaile berriek izena eman beharko dute HAZen. Aurten, Elorrioko Udalak 10.000 euro erabiliko ditu proiektu honetarako.

# Berrizko merkataritza bultzatzeko kanpaina, martxan

Berrizen martxan ipini dute tokiko merkataritza sustatzeko kanpaina; martxoaren 9ra arte iraungo du

**A. M.** BERRIZ

Berrizko Merkatari Elkarteak *Sariak udaberrian* kanpaina ipini du martxan, Berrizen tokiko merkataritza bultzatzeko asmoagaz. Epe horretan kanpainan parte hartzen duten komertzioetan erosketa egiten dutenen artean bonuak zozkatuko dituzte. Astelehenean hasi zuten kanpaina eta martxoaren 9ra bitartean iraungo du. Erosketak egiten dituztenen artean, erosketa bonuak zozkatuko dituzte; negozio bakoitzak ehun euro zozkatuko ditu erosketa-txarteletan. Zozketa martxoaren 10ean egingo dute, 15:30ean, anbulatorio zaharraren eraikinean (Juan Vicente Zengotitabengoa, 6). "Parte hartzeko mekanismoa erraza da: bezeroek datuekin bete behar dute erosketa-txartela, eta establezimenduan egongo den kutxan sartu, erosketaren zenbatekoa edozein dela ere", azaldu dute BMEkoek. Berrizko Merkatari Elkarteak Berrizko Udalaren eta Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren laguntza jaso du kanpaina egin ahal izateko.


BIDALI ZURE ARGAZKIA 688 635 041 ZENBAKIRA EDO WEBGUNERA
INAUTERIETAKO
ARGAZKI LEHIAKETA
SARIA
EUSKAL PRODUKTUEKIN OSATUTAKO OTZARA BAT
ARGAZKIAK BIDALTZEKO AZKEN EGUNA
MARTXOAK 6
anboto

anboto kide

Anbotokideen txokoa

MARTXOKO ZOZKETAK

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.



**Basa:** Basa take away jatetxeko 6 Baoko kutxatxoa.




**Pirritx eta Porrotx jaialdia**, maiatzak 3. 2 sarrera bikoitz.



**Xiberu tabernan** bi gosari bikoitz. Zornotza.

IRABAZLEAK

**Errigoraren otzara:**
Itziar Barrenetxea Etxebarria
**Goazen kontzerturako sarrerak:**
Jon Vidal Urdangarin
Ismene Agirre Maguregi
**Xiberu tabernan gosari bikoitza:**
Ana Ajuriaguerra Albizua
Joseba Arrinda Uriarte

**Okm:** batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketeton!



Jata ingurua.

# Jata ingurua bota eta etxebizitzak eraikitzeko lehen pausoa

Abadiñoko Udalak eta URA agentziak hitzarmen garrantzitsu bat sinatzeko akordioa lortu dute

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO

Abadiñoko Udala eta URA agentzia hitzarmen berri bat sinatzeko puntuan daude. Udalak jakinarazi duenez, hitzarmen honek bide emango du Zubibitarte kaleko eraikinak (Jata lantegiaren ingurukoak) bota eta bertan etxebizitzak egiteko. Gainera, honek, besteak beste Traña-Matiena ingurua uholdeetatik babestea eta 10 urtez geldirik dagoen HAPOaren desblokeoa ere ekarriko duela azaldu dute udal agintariek.

Hitzarmen hau ez da Abadiñoko Udalak eta URAk sinatuko duten lehenengoa izango. Aurreko legegintzaldian, EAJ agintaldian zegoela, erakunde biek beste hitzarmen bat sinatu zuten eta prozesu honi hasiera eman zioten. Mikel Urrutia alkateak hauxe esan du: "Hitzarmen berri honegaz, Abadiñoko Udalak milioi bat euro aurreztu ahal izango du eta Traña-Matienari egun abandonatuta dagoen industrialdearen eremua bueltatuko dio".

Gobernu taldearen asmoa hurrengo osoko bilkuran hitzarmena onartzea dela azaldu dute.

# Abadiñoko ortu publikoetan izena emateko aukera dago

Martxoaren 21era arte eman daiteke izena, udaletxean edo Traña-Matienako udal bulegoan

**M.Z.** ABADIÑO

Abadiñoko Udalak izen ematea zabaldu du ortu publikoetan partzelak eskuratzeko. Abadiñarrek 50 m2-ko 66 lurzati izango dituzte eskuragarri. Udaletik jakinarazi dute irizpide sozialak kontuan hartuko dituztela eremuen esleipena egiterako orduan, lurzatiak beharrizanik handiena duten herritarrek eskuratu ditzaten. Gainera, genero ikuspegia ere txertatuko da.

Izen ematea martxoaren 21era arte egin ahal izango da, udaletxean edo Traña-Matienako udal bulegoetan.



Ortuak Zelaietan egondo dira.

# Martxoaren 6an Euskaraldiko herri batzordeko batzarra Mallabian

Martxoaren 15etik 25era bitartean egingo dute Euskaraldia, *Elkar mugituz egingo dugu* lelopean




Aurreko edizioko argazkia.

**Maialen Zuazubiskar** MALLABIA

*Elkar mugituz egingo dugu* lelopean, Euskaraldiaren beste edizio bat egingo da maiatzaren 15etik 25era bitartean. Berau antolatzeko eta motorrak berotzen joateko, Mallabian Herri Batzordea eratu dute. Herri Batzorde honek dagoeneko badu hurrengo batzarrerako hitzordua: datorren eguenean, martxoak 6, 19:00etan, Mallabiko liburutegian. Herri Batzordeko kideek bertan parte hartzeko deia egin diete mallabitarrei.

Martxoaren 6ko batzordean, Mallabiko Euskaraldiko hamaikakoaren zerrenda egitea, arigunearen sustapena egitea eta Euskaraldiko hamaika egunak antolatzea izango dela helburua azaldu dute antolatzaileek.




Hamaiketako eskaintza Atxondoko eskolan.

## Hamaiketako osasungarriak eskualdeko eskoletan zabaltzen

Berton Bertokoak interesgarritzat jo du programa Durangaldeko beste hainbat ikastetxetara eramatea

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Hamaiketako osasungarrien programa Durangaldeko hainbat ikastetxetara ailegatu da azken urteotan, eta aurrerantzean ere egitasmoa eskola gehiagotara eramatea gura dute. Berton Bertokoa dinamika eta eskualdeko baserritar ekoizleak 2023an hasi ziren Atxondoko eskolan programa garatzen. Ordutik hona, haurreskolako eta Lehen Hezkuntzako umeek eskualdeko baserritarren produktuak eta sasoiko elikagaiak jaten dituzte jolasorduan. Era berean, programa beste hainbat herritara zabaldu dute harrezkero. Iazko maiatzean, Berrizko, Elorrioko, Zaldibarko eta Maiztegiko eskoletako ikasleek (Iurreta) hamaiketako osasungarriak jaso zituzten astebetez. Aurten, Zelaietako eskolan (Abadiño) izan dute, eta laster Traña-Matienako eskolara eta Durangoko Zabalarrara ailegatzea gura dute antolatzaileek. Berton Bertokoa dinamikako kideek esan dutenez, "horretarako lanean" dabiltza.

**Zabaltzeko proposamena**

Eskolarik gehienetan, hamaiketako osasungarrien programa astebetez egon da martxan, baina Berton Bertokoak maiztasun hori handitzeko eta programa eskola gehiagotan errotzeko proposamena mahaigaineratu du. "Egitasmoa eskualdean zehar hedatuko balitz, lehen sektorearen biziraupenerako oso interesgarria izan daitekeen proiektu bat izango genuke", azaldu dute. Honako datu hau ere eman dute: Atxondoko eskolan bakarrik 6.000 euroko erosketa egiten diete bertoko baserritarrei urtero.

## Durangaldeko establezimendu gastronomikoak ebaluagai

Bilboko Ostalaritza Goi Eskolako adituek eskualdeko eskaintza gastronomikoaren diagnostikoa egingo dute

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Bilboko Ostalaritza Goi Eskolako adituek, Bizkaiko Foru Aldundia lagun, eskualdeko establezimendu gastronomikoak bisitatuko dituzte bertako eskaintza eta funtzionamendua ebaluatzeko. Ondoren, diagnostiko zehatza egingo dute, establezimenduetako esperientzia gastronomikoa optimizatze aldera. Bizkaiko Foru Aldundiak azaldu duenez, egitasmoaren helburua "esperientzia gastronomiko bereizgarri eta kalitatezkoak sortzea" da. Establezimendu bakoitzari egin beharreko jarraipena eta azterketa behar diren moduko izan daitezen, zerbitzua taberna edo jatetxe kopuru mugatu batek baino ezingo du jaso. Hori dela eta, azterketan parte hartu gura duten establezimenduek gaur izango dute azken eguna azterlanean izena emateko. Hemen eman daiteke izena: *turismoa@landagarapena.eus* eta 946 203 611.



Pintxoak Durangoko taberna batean.

## Aurrekontu parte hartzaileen prozesua hasiko dute Iurretan

**A. Basauri** IURRETA

Iurretako Udalak aurtengo aurrekontu parte hartzaileen prozesua hasiko du martxoaren 3an. Lehenengo fase honetan herritarren proposamenak batuko dituzte, martxoaren 16ra bitartean. Ondoren, bideragarriak diren proiektuak lehenetsiko dituzte. Hautaturiko proiektuak gauzatzeko, udalak 50.000 euroko diru poltsa du.

Udalak hainbat bide zabaldu du proposamenak biltzeko. Hautetsontziak ipini dituzte zenbait establezimendutan, eta udal bulego eta eraikinetan. Bestela, *www.iurreta.eus* atarian dagoen inprimakia bete daiteke, edo etxeetara bidalitako inprimakian dagoen Qr kodea erabili. Bestalde, txokolatada informatiboa antolatu dute zalantzak argitzeko eta prozesuari buruzko azalpenak emateko. Martxoaren 6an izango da, Nagusien Egoitzan, 17:00etan. Martxoaren 5ean, teknikari bi auzoetara joango dira azalpenak emateko eta ekarpenak batzeko.



Iurretako herrigunea. ANBOTO



Aurkezpeneko irudia. MAITANE TOTORIKA

## Errime aurkeztu dute Iurretan

**E.H.** IURRETA

Durangaldeak beste euskara elkarte bat du: Errime, Iurretako euskara elkartea. Antolakundea urtea hasi berritan sortu zuten, baina joan zen barikuan egin zuten haren aurkezpen publikoa jendaurrean. Euskararen aldeko lanean bat egitera animatu zituzten herritarrak: "Hizkuntzak ez baitira aberastasuna besterik eta gure hizkuntza bizitzeak bakarrik biziko baititu gure herria eta gure kultura", nabarmendu zuten Dantzari kalean egindako aurkezpenean.

## Ke-detektagailuak 80 urtetik gorakoen eskura, Otxandion

Udalak 10.000 euro lotu ditu, adineko pertsonen ingurune fisiko eta soziala hobetzea helburu hartuta

**A. Basauri** OTXANDIO

Otxandioko Udalak 80 urtetik gorako herritarren etxebizitzetan ke-detektagailuak ipintzeko aukera emango du martxotik aurrera, adineko pertsonen ingurune fisiko eta soziala "hobetzeko" helburuagaz. Pertsona Nagusien Udal Behatokia programaren barruan instalatuko dituzte. Gainera, suteen prebentziorako zerbitzua eskainiko dute eta larrialdietan ebakuazioa errazteko krokisak egingo dituzte, udal ordezkariek azaldu dutenez. Zerbitzuaren kostua udalak hartuko du bere gain, eta, horretarako, 10.000 euroko diru poltsa lotu dute; hasieran, 62 ke-detektagailu ipintzeko aukera emango luke horrek.

Zerbitzua emateko ezinbestekoa da aldez aurretik etxebizitzaren azterketa egitea, udal arduradunek azaldu dutenez. "Horretarako, behar den moduan identifikaturiko teknikaria joango da etxebizitzetara ke-detektagailuak ipintzera".

## Garaiko nagusien elkarteko kideen bilera, domekan

**E.H.** GARAI

Garaiko nagusiek bilera egingo dute domeka honetan, iazko ekitaldien memoria idazteko eta aurtengo ekintzen zirriborroa egiteko. "Iazko kontuak itxiko ditugu, eta aurrera begirakoak landu", azaldu dute elkarteko kideek. Domekako bilera 11:30ean izango da, Otea Loran elkartean.



Garaiko herrigunea.



**Zornotza.** ANDRA MARI IKASTOLAKO GURASOEN EUSKARA TALDEA

# Txitxiburduntzia Durangaldean

Hainbat elkarte eta kuadrillak txorizoa eta urdaia erre zuten joan zen asteburuan, eguraldi onak lagunduta

**Jone Guenetxea** DURANGALDEA

Txitxiburduntzi jendetsuak antolatu zituzten joan zen asteburuan Durangaldean. Hainbat elkarte eta norbanakok ANBOTOra bidali dituzte ekitaldi horietan egindako argazkiak. Eguraldi bikaina egin zuen eta egun zoragarria igaro zuten. Kasu askotan, txitxiburduntzia aitzakia bat izan zen lagun artean egun-pasa ederra igarotzeko.

Zornotzan Andra Mari ikastolako gurasoen Euskara Taldearen ekimenez jendetza batu zen. Garain Trumoittek antolatu zuen hitzordua. Zaldibarren Zaldua Mendi Taldeko belaunaldi berriak egin zuen deialdia. Iurretan jai batzordea izan zen deitzailea, eta Otxandion Mañondo, Arkotxa eta Mirugain elkarteak. Durangon, Herria auzo elkartea. Abadiñoko Gaztelua auzoan ere egin zuten ospakizuna.



**Zornotza.** ANDRA MARI IKASTOLAKO GURASOEN EUSKARA TALDEA.



**Abadiño.** ABADIÑOKO UDALA



**Garai.** TRUMOITTE.



**Abadiño.** ABADIÑOKO UDALA


Iurreta. UXUE ESTURO


Otxandio. OTXANDIOKO UDALA


Otxandio. OTXANDIOKO UDALA


Durango. HERRIA AUZO ELKARTEA


Otxandio. OTXANDIOKO UDALA


Zaldibar. LEHIOR ELORRIAGA

# Inauterietako lehiaketa, martxan

Martxan da ANBOTOk antolatzen duen Inauterietako argazki lehiaketa. Martxoaren 6ra bitartean, herritarrek aukera izango dute bertan parte hartzeko eta euskal produktuekin osaturiko otzara bat irabazteko. Bide bi egongo dira parte hartzeko: bata argazkia zuzenean *www.anboto.org*-n ipintzea, eta bestea 688 635 041 zenbakira bidaltzea.



Iazko lehiaketako irabazlea.

## DURANGALDEA ASTEON

### Berrizburuko zelaia berrizteko obrak, lizitatuta

BERRIZ Berrizko Udalak Berrizburu futbol zelaia eraberritzeko lanak lizitatu ditu. Besteak beste, belar artifiziala ordezkatu eta ureztatze sistema berria ipiniko dute. Lanek 410.000 euro inguruko aurrekontua dute eta hiru hilabete iraungo dutela aurreikusten dute.



### 'Maite zaitut' jairako sarreren zozketa

DURANGALDEA Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei 'Maite zaitut!' esateko, festa erraldoia egingo dute maiatzaren 3an Bizkaia Arena-BEC!-en. Martxoan ANBOTOk sarrera bikoitz bi zozkatuko ditu 14.000 lagunentzat antolaturiko ikuskizunerako. Datozen asteetan zehar izango duzue zozketaren berri.

Sarrerak erosi gura dituenak *nikeremaitezaitut.eus* atarian erosi ditzake, 15 euroan.



ERAMAN JAI ALAI

### Zesta-puntistarik onenak Durangon lehian

DURANGO Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak emakumeen Euskotren Winter Series txapelketa hartuko du martxoaren 10ean, 17an eta 24an. Maite-Maialen, Helena-Arai, Ihart-Frida eta Elaia-Oaia dira parte hartuko duten lau bikoteak. Horrez gainera, egun horietan gizonen banako serieseko partiduak ere jokatuko dira. Sarrerak *www.eramanjaialai.com* webgunean eskuratu daitezke.

## GUTUNAK

### Idatzi zure gutuna eta bidali!

**Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## POLITIKAN



**PAULE SANCHEZ**
EAJ

### Mozorropean ere, berdintasuna aldarrikatu

Aurreko igandeko txitxiburduntzi egunarekin hasten dira inauteriak Durangon. Ohikoa da familia edo lagunartean paseotxoa eman eta gero txorizoa (edo beste jakiren bat) burduntzian erre eta elkarrekin hamaiketakoa egin eta egunaz gozatzea.

Badatoz gero, eguen zuri, bariku argi, zapatu erregular, domeka, astelehen eta martitzen karnabal, eta koplek, maskarek, koloreek, musikak eta jai giroak protagonismo itzela hartzen dute gurean.

Mozorroak edonon ikusten dira. Bakarrik zein kuadrillakoekaz, eguneroko pertsonaia alde batera utzi eta beste rol batzuk antzezteko egunak dira askorentzat.

Aurten, gainera, udaberriko lehen ilargi beteak, egutegian bata bestearen jarraian jarri ditu inauteriak eta Martxoaren 8a, oinarrian, askatasunaren eta aldarrikapenaren sinboloak diren data desberdin bi.

Ezin dugu ahaztu historian zehar, emakumeak mozorrotu egin behar izan direla (garela) ezarritako rolak bete, edota arauak hautsi eta dagokigun lekua gureganatu eta aldarrikatzeko. Emakume piratak, zientzialariak, idazle, artista, kirolari, kazetari... guztiak inoiz maskara baten atzean, errealitatearen inposaketari aurre egiteko.

Mozorropean edo aurpegia emanez, egunero benetako berdintasunaren eta egiazko askatasunaren bidean jarrai dezagun!

anboto

**Gertuko Koop S., Gizarte Ekimenekoa**

**Bixente Kapanaga, 9**
**48215 Iurreta - Bizkaia**
**Tel.: 946 816 558**
**Erredakzioa:** 946 232 523
**Publizitatea:** 946 217 902

**Lege gordailua:** BI-2268/01
**ISSN:** 1578-7028
**Tirada:** 12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala. eta Irati Otadui Maiztegi.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00225

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua


MARTXOAK 8
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO
EGUNA
2025



Bego Goitia, Mari Kargeriaren alaba, Lekeitioko portuan.




# "Mari *kargeria* oso emakume herrikoia izan zen Lekeition"

**BEGO GOITIA IGARTUA** LEKEITIOKO MARI 'KARGERIA'-REN ALABA

Zendu zenetik hamarkada batzuk joan diren arren, Mari 'kargeria' bizi-bizirik dago lekeitiarren oroimenean. Abadiñarra zen sortzez, eta Lekeitioko kaleetan lan egin zuen, paketeak dendarik denda gurdian banatzen. Bego Goitia haren alabetariko bat da

**Ekaitz Herrera** LEKEITIO

*"Hamen nator, Mari kargeria lez karga-karga eindda"*. Baten bat soinean makina bat poltsagaz edo paketegaz ikusten baduzu eta hori esaten entzuten badiozu, ez dago dudarik: pertsona hori lekeitiarra da. Izan ere, Mari *kargeria* oso herritar ezaguna izan zen Lekeition. Berezia, ikonikoa, egunero-egunero gurdia hartu eta paketeak herriko kaleetan gora eta behera banatzen zituelako geratu barik. Oraindino ere, zendu zenetik hainbat hamarkada joan diren arren, Mari *kargeria* bizi-bizirik dago lekeitiarren oroimen kolektiboan. Alabaina, gutxik dakite emakumea Abadiñokoa zena, Sagastako Errekalde baserrikoa, hain zuzen ere. Istorio eta biografia txikiak handi egiteko asmoz, ANBOTO Lekeitiora joan da Mari *kargeria*ren figura ezagutzera, eta haren alabetariko bat, Bego Goitia, elkarrizketatzera.

**Mari *kargeria* oso herritar ezaguna izan zen Lekeition, baina gutxik dakite sortzez abadiñarra zena.**

Halantxik da. Maria Igartua Unzueta zuen izen osoa, baina Lekeition *Mari kargeria* legez zen ezaguna. Abadiñoko Sagasta auzoan jaio zen, Errekalde baserrian. Bost neba-arreben artean zaharrena zen gure ama. Baserritarra.

**Zelan amaitu zuen amak Lekeition?**

Amak hamabi urte zituela, bere aita, gure *aittitta*, hil egin zen, gazte-gaztetik. Orduan, *amumak* dena aurrera ateratzeko zailtasunak zituela eta, gure ama Lekeitiora etorri zen, pariente batzuenera. Ikutza izeneko tabernara etorri zen, Ikutzeneko tabernara, garai hartan Lekeitioko Trinitate kalean zegoen tabernara. Hangoengana etorri zen laguntzera, eta halantxik hasi zen lan mundua ezagutzen, errekaduak egiten. Gero, ba, hemen geratu zen.

## "FURGONETEKIN, LAN HORIEK AMAITU EGIN ZIREN; AMA IZAN ZEN HERRIKO AZKEN KARGERA"

**Hona etorri eta hemen geratu.**

Bai. Gure aita taberna hartan egoten zenez, gurasoek hemen ezagutu zuten elkar, gaztetxotan. Aitak Patxi Goitia Bilbao zuen izena. Hemengoa zen, marinela.

**Lekeitiko herritarrek ondo gogoan dute zuen amaren irudia: emakume indartsu bat, paketez eta kaxaz beteriko gurdi bat herriko kaleetan gora eta behera garraiatzen. Zelan hasi zen ama banatzaile lanetan?**

Santa Katalina kaleko lonja ba-

tean hasi zen paketeak hartu eta gurdian banatzen, Gabikarenean. Gaur egun, beste denda bat dago bertan, *dena ehunean* saltzen duten horietarikoa. Ba, lehenagoko lonja hark kamioi bat zeukan eta kamioia Bilbora joaten zen paketeak ekartzera. Irudikatzen duzu gaur egun Seur eta halako banaketa enpresek egiten duten lan hori? Ba, gure amak horixe egiten zuen Gabikarenean. Gurdia hartuta, lonjara ailegatzen ziren paketeak banatzen zituen herrian zehar. Errekadista zen, eta ez zeukan ez soldatarik, ez kontraturik, ez asegururik. Herritarren eskupekoekin irabazten zuen jornala. Garai hartan ez zegoen furgonetarik eta halakorik. Amak astelehenetik zapatura lan egiten zuen, goizetan. Ezkondu eta gero hasi zen lan horretan. 60ko eta 70eko hamarkadetan zehar lan egin zuen.

**Lan gogorra amarena. Kontraturik ez, eta Lekeitioko aldatsetan gora eta behera gurdiagaz.**

Gizon bat ere ez litzateke gai izango lan hori egiteko. Gurdia paketez bete-beterik izaten zuen, txuntxurreraino beteta. Batzuetan, kamioien aurretik ere joaten zen gurdiagaz, eta ez zien pasatzen uzten: *"Hala! Jo bozinia nahi bozu, ez dotsut itziko pasaten-da! Geuk be pagaten dogu inpuestua udaletxian! Ez zarie pasauko neu jun arte neure tokira!"*, esaten zien. Ama emakume txikia zen, baina bizkorra. Egundoko *malahostia (hostitxarra)* zeukan. Horrez gainera, berritsua ere bazen. Denden aurretik gurdiagaz pasatzen zenean, berriketan geratzen zen dendariekin.

**Zelan ikasi zuen ogibidea?**

Ama banaketa lanetan hasi baino lehenago, edadeko beste emakume bi egon ziren herrian lan hori egiten. Gure ama euretariko bategaz hasi zen beharrean. Haregaz ikasi zuen lanbidea, hara eta hona joaten laguntzen. Halantxik hasi zen bera ere beharrean. Gerora, furgonetak, banaketa-enpresak eta halakoak ailegatu zirenean, lan horiek desagertu egin ziren. Gure ama izan zen Lekeitioko azken kargera.

**Eta halantxik, ama jubilatzeagaz batera, betiko lan horietariko bat desagertu zen: kargera lana.**

Jubilatzerakoan, amak Gabikarenean utzi zuen gurdia. Ibilgailuaren arrastorik ez dakit non egon daitekeen. Eta, handik aurrera, erretiroa hartu eta gero, jubilatuen etxera joaten zen kartetan egitera. Egun euritsu batean, jubilatuenera zihoala, auto batek harrapatu eta mokorra apurtu zion. Galdakaoko ospitalera eraman zuten, baina handik aurrera ez zuen bururik altxatu. Ez zen errekuperatu, ez zuen berriro ere oinez ibiltzen ikastea lortu.

**Urteak joan dira ama zendu zenetik, baina oraindino ere Mari kargeria bada nor lekeitiarren artean.**

Bai. Iñakik, oraintsura arte aguazila izan denak, esan izan dit inoiz ez dakit zer eta badakit zer, eta Mari *kargeria*k omenaldia edo horrelako zeozer behar zuela. Izan ere, halako emakume bat gurdiagaz gora eta behera ikustea… ene! Gizonezkoak eurak ere ikaratuta geratzen ziren! Egundoko indarra zeukan. Oso emakume popularra zen Lekeition, herrikoia.



Maria Igartua Unzueta, Mari *kargeria*, Lekeitioko kaleetan gurdiagaz lanean. LEKEITIOKO UDALA

## "GIZONAK EURAK ERE IKARATUTA GERATZEN ZIREN AMA PASATZEN IKUSITA; EGUNDOKO INDARRA ZUEN"







Ana Urkidi, Ibarretxe kultur etxearen kanpoaldean.

# "Testigantzetan sorpresa handiak eraman ditugu"

**ANA URKIDI ARANGUENA** ANDEREBIDE ELKARTEKO PRESIDENTEA

Anderebidek landa eremuko emakumeen gaineko testigantzak jaso eta bideolan bitan batu ditu; martxoaren 7an eta 20an erakutsiko dituzte, Ibarretxe Kultur Etxean

**Joseba Derteano** IURRETA

Ana Urkidi eta Anderebideko kideak baserririk baserri ibili dira atzoko eta gaurko emakumeen bizimoduak eta pentsamenduak batzen. Itxaroten zuena baino askoz gehiago eman dion esperientzia izan dela dio Urkidik, eta oso aberasgarria izan dela.

**Zelan sortu zen proiektua?**

Urriaren 15a landa eremuko emakumeen eguna da. Egun horri begira, 2023an, eurei buruzko bideolan txiki bat egin eta horren inguruan solasaldi bat antolatu zen. Denak prest egon ziren euren esperientziak partekatzeko, eta oso giro ona sortu zen. Testigantza gehiago beste inon jasota ez geratzearen pena geratu zitzaigun. Iaz sormen beka lortu genuen eta horregaz hasi ginen lanean.

**Zenbat emakumegaz egon zarete?**

Adin guztietako 28 emakumegaz egin genuen hartu-emana, eta euretariko 22 elkarrizketatu genituen. Denak euskaldunak dira eta gaztelaniazko azpitituluak gehitu dizkiogu. Nagusienak 96 urte ditu, eta gazteenak 19 urte.

**"ADIN GUZTIETAKO TESTIGANTZAK DAUDE. NAGUSIENAK 96 URTE DITU, ETA GAZTEENAK 19 URTE"**

Kasuren batean, familia bereko hiru belaunaldi hartu ditugu: amama, alaba eta iloba. Hasieran, sasoi bateko emakumeen esperientziak jasotzea zen gure asmoa, iraganari buruzko ikuspegia jasotzeko, baina gero zabaldu egin genuen adin tartea, urteetan gertatu den garapena erakusteko eta gaur egunari eta etorkizunari begirako begirada gehitzeko.

**Zelakoa izan zen grabazio prozesua?**

Eurekin aurrez aurre berba egin behar genuela erabaki genuen. Hau da, kotxea hartu, etxeetara joan eta proiektua azaldu. Bideogintzan profesionalak direnekin egindako grabazioak izango zirela, kamera bigaz grabatuta. Sarritan esaten zigu-



ten: "Zer esan behar dut nik, ba! Nik esateko dudanak ez du garrantzirik". Baietz esaten genien, euren esperientziak eta pentsamenduak jasotzeak garrantzi handia zuela eta beste batzuk islatuta sentitu zitezkeela. Egia esanda, denak oso eskuzabal eta proiektuan parte hartzeko prest agertu ziren.

**Material asko batu zenuten?**

Bai. Ordubete baino gehiagorako materiala geneukala konturatu ginen. Sormen bekak bideo baterako ematen zigun, atzoko begiradari buruzkoa egiteko. Orduan, bigarren bideolan baterako finantziazio bila hasi ginen. Kofradiengana jo genuen eta hasiera-hasieratik baietz esan ziguten, proiektu interesgarria eta garrantzitsua iruditzen zitzaiela. Gero, beste enpresa biren laguntza izan dugu: Smurfit-Westrock eta Furesa enpresena. Bideolanagaz gainera, liburuxka bat ere prestatu dugu.

**Nagusienak garai aldaketen testigu izan dira. Zer kontatzen dute?**

Oso testigantza interesgarriak dira. Batzuek kontatu digute zelan jaisten ziren Goiuriatik astoagaz bidexketatik, orduan ez zegoen errepiderik eta. Edo zelako aldaketa bizi izan zuten etxean garbigailua sartu zenean; edo traktorea sartu zenean. Berdin behiak batzeko makinagaz. Lan gogorra izan dela diote. Beste batek kontatu zigun zenbat kostatu zitzaion pentsioa lortzea, lehen ez zuelako jubilaziorik. Batera joan, bestera joan, ez zen erraza izan.

**Zer diote gaur egungo egoerari buruz galdetuta?**

Landa eremuko bizilagunen bizitza komunitarioa galdu egin dela diote askok. Lehen, inguruko baserrietakoak baserri batean batzen ziren, kartetan jokatzeko edo meriendarako. Ohitura hori guztiz galdu dela kontatu dute. Orain familiakoak familiakoekin batzen dira. Horrez gainera, gaur egun baserrian lan egiteko testigua hartuko duen inor ere ez datorrela diote askok. Badaude salbuespenak ere. Esaterako, Iurretan ortu ekologikoak daude eta horietan dabiltzan emakume bi elkarrizketatu ditugu. Biek hartu-eman handia izan dute baserriagaz, herrigunera joan aurretik. Biak oso gustura dabiltza.

**Gazteenek beste era bateko errealitate bat biziko zuten.**

Bai. Gazteenak, 19 urtekoak, baserria bere toki segurua dela dio. Birramama, amama, ama eta izeko baserri mundukoak ditu, umetatik ezagutu duen bizimodua da eta beretzat bere leku segurua da baserria. Bestalde, gazteagoak direnentzat landa eremua bizitokia da, bizimodua aurrera ateratzeko lantokia baino gehiago. Edo bien arteko konbinazioa; hau da, baserriko beharra kanpoan duten lanagaz bateratzen dute. Askok goi mailako ikasketak dituzte. Esate baterako, elkarrizketatu bat erizaina da. Krisi ekonomikoa heldu zenean, senarra beharrik barik geratu zen. Orduan, bera lanaldi osoan hasi zen, eta senarra baserrian abereak gobernatzen hasi zen. Oso ondo irten zitzaien. Krisiaren irtenbidea baserrian aurkitu zuten. Orain, seme biek ere laguntzen diete etxean.

**"LANDA EREMUKO BIZILAGUNEN BIZITZA KOMUNITARIOA GALDU EGIN DELA DIOTE ASKOK"**

**"BASERRITIK BASERRIRA, AURRETIK BATU BAKO ESPERIENTZIAK BATZEN GENITUEN"**

**Arlo pertsonalean, esperientzia polita izan da?**

Oso aberasgarria izan da. Baserririk baserrira gauza desberdinak ikusten eta jakiten genituen, aurretik batu bako ikuspuntu, errealitate eta esperientziak. Esate baterako, 96 urtekoa elkarrizketatzera joan ginenean, auzokide bat han inguruan zebilela ikusi genuen. Berarengana hurbildu ginen. Ortuan tomate barietate handia zuela esan zigun. Ortua ikustera joan eta liluratuta geratu ginen. Landare bati erreparatu genion eta tomate-arbola zela esan zigun. Ematen dituen tomateak zukuan baino ez ei dira kontsumitzen, ez ei dira jatekoak. Eta bere ahizpak arabiar arrazako zaldiak hazten ditu eta konpetizioirako hezten ditu. Zaldi asko atzerrira saltzen ditu.

**Beraz, itxaroten zenuen baino gehiago jaso duzu.**

Askoz ere gehiago. Ezagutzen ez nituen tokiak eta jende asko ezagutu ditugu. Testigantzetan sorpresa handiak eraman ditugu. Hain inguru txikian hainbeste sorpresa hartzerik ez nuen inondik inora espero. Azken batean, Iurretan ibili gara, herri txiki batean. Anderebidetik, emakume elkartea izanik, ikusten genuen landa eremuko emakumeekin herrigunekoekin baino lan gutxiago egin dugula, eta haiengana hurbiltzea ere komeni zitzaigula. Hartu-eman hori landu gura genuen. Ezagutzen ez genituen errealitateak ezagutu ditugu. Esate baterako, emakume batek kontatu zigun lehen senarrak eramaten zuela kotxea, eta alargun geratu denetik mugikortasuna galdu duela, bidea arriskutsua delako oinez ibiltzeko. Landa eremuen eta herriguneen arteko deskonexioa hausteko modua ere izan da.



# "Gozatze sexualari tarterik egiten ez badiogu, ardura ez digulako da"

**LAURA MORÁN FERNÁNDEZ** PSIKOLOGOA, SEXOLOGOA ETA TERAPEUTA FAMILIARRA

Desioa ulertzeko, aukera polita egongo da martxoaren 7an, 18:30ean, Durangoko Bizenta mogel bibliotekan; Laura Morán psikologoak berbaldia emango du




**Aritz Maldonado** DURANGO

Desira ulertzea bizitza sexual osasuntsu eta betea izateko lehenengo urratsa dela diote. Izan ere, sexu-grinean emozioek, hartu-emanek edo prozesu biologikoek ere eragiten dute. Desiran sakondu eta bere jatorri eta ezaugarriak ezagutzeko, Laura Morán psikologoak berbaldia emango du Durangoko Bizenta Mogel bibliotekan. Sexuaren inguruan dagoen hainbat mito faltsu ere gezurtatuko du. Moranek hainbat irrati eta telebista saiotan kolaboratu izan du, eta *¿Por qué no deseo?* liburua kaleratu du.

**Zelan sortzen da desira?**

Desira batuketaren eta kenketaren emaitza da, aktibatzen duten faktoreak daude, eta frenatzen dutenak; adibidez, estresa, heziketa sexual eskas bat edo gaixotasun fisikoren bat.

**Estresa aipatu duzu. Egungo bizitza erritmoak eragina du?**

Bizi erritmo ez oso osasuntsuak ditugu gaur egun, eta ohikoa da egunaren amaierara itxarotea sexu hartu-emanak izateko; hau da, lehertuta gaudenera arte itxaroten dugu. Sarri galdetzen da bikote terapian zergaitik suposatzen duten hartu-eman sexualek esfortzu bat. Hor agertzen da erantzunetariko bat, batez ere, emakumezkoen artean: elkartze sexualetan pozik ez amaitzea, ez asetzea. Orokorrean, koitoan oinarritzen diren hartu-emanak ditugu, koitozentristak, eta, emakumeen kasuan, sarketa ez da orgasmora heltzeko teknikarik gomendagarriena; hortik sexurako gogo falta, izan ere, asumitzen dute ez direla orgasmora ailegatuko. Eta, bitxia bada ere, horri buruz oso gutxi berba egiten da bikote hartu-emanetan. Gauza askori buruz berba egiten duten bikote asko dago, baina sexuari buruz ere berba egiten dutenak ez hainbeste.

**Bikote gazteekin ala helduagoekin igarri duzu hori?**

Bikote gazteagoek berba gehiago egiten dutela igarri dut, baina okerreko uste asko dago eta, sexuari buruz berba egiten duten arren, txarto egiten dute. Batez ere, bikote heteroei buruz nabil, desira faltarik ohikoena haiengan izaten delako. Ez beti, dena dela. Pentsakera batek dio, eta bikote horiek normaltzat hartzen dute, emakumeek ez dutela sexurik behar. Eta okerreko ustea da, hain zuzen ere, gizonezkoek sexua behar dutela. Benetan behar, inork ere ez du behar. Nahitaezkoa dugun bakarra jatea, lo egitea eta ura edatea da. Bizi daiteke sexurik barik, bizitza aspergarriagoa izango den arren; eta bizi daiteke bonboirik barik, Playstationik barik edo bidaiatu barik, baina denok gura dugu plazertxoren bat izan. Beraz, egon daitezke oso bikote simetrikoak, batere matxistak, eta etxeko lanekin super berdinzaleak direnak, baina sexuaz berba egiterakoan, 'nik behar dut baina zuk ez didazu ematen' diotenak. Eta hor horizontaltasun hori apurtzen da. Emakumezkoak errudun edo haserre sentitzen dira, ez dutelako ulertzen zergaitik eman behar duten gogorik ez badute, eta gizonezkoek frustrazioa sentitzen dute eta euren buruari galdetzen diote: 'Maite banau, zergaitik ez du gura nigaz larrua jo?'. Sineskeria horiek maitasun erromantikoaren ondorio dira eta azalpen instintibo horiek bikoteen bizitza sexuala izorratzen dute. Beste sineskeria bat desira ez heltzea da. Jende asko etortzen zait esanez jada ez dela 'lehengoaren modukoa'. Horri buruzko oso ideia estereotipatua dugu, uste dugu desira etorri egin behar zaigula, baina elikatu eta piztu egin behar da. Baina hori ere ez digute kontatu.

> **"UGALTZE SISTEMA ZAINTZEARI UTZI ARREN, SEXU ORGANOEZ GOZATZEN JARRAITU DAITEKE"**

> **"ZERGAITIK EZ DIOGU GARRANTZIA EMATEN BILUZTU ETA BESARKATUTA EGOTEARI?"**

**Zelan zaintzen da desira?**

Desira ere landu egiten da. Lehenengo eta behin, zure bizitzarako garrantzitsua den ala ez begiratu behar duzu. Kirola egitearen, elikadura osasuntsua eramatearen edo bizitza sozialari garrantzia ematearen modukoa da; desira entrenatu egin behar da. Askotan, sexua praktikatzeaz berba egitean, uste da hartu-eman horiek konpartituak izan behar dutela, baina masturbatu, adibidez, bakarrik ere egin daiteke. Horretarako, praktika hori, plazer hori, zuretzat garrantzitsua dela uste behar duzu. Jende askok,



Laura Morán, telebistan.

emakumeek batez ere, uste dute ez dela garrantzitsua. Sexu heziketa bereizgarria gakoa izan da arlo honetan. Mutilei, zelanbait, gizarteak masturbatzea baimentzen die, edo pornoa ikustea... Normaltzat hartzen dugu, baina emakumeekin ez dugu berdin egiten. Joan den astean ikastaro bat eman nuen eskola batean, eta mutilek harro zioten kanpaia jotzen dutela, denek, baina neska batek ere ez zuen ezer esan. Eta hori ez da horrela. Neskak ere masturbatzen dira, baina ez dute ezer esaten. Ez dute baimen sozial hori. Eta, jakina, zu masturbatzen ez bazara, zure gorputza ezagutzen ez baduzu, zelan esango diozu kideari zer duzun gustuko? Beraz, zuretzat ea garrantzitsua den ikusi behar duzu, ezagutu behar duzu eta zeure burua ezagutu behar duzu, jakiteko zer gura duzun, zerk berotzen zaituen. Bigarrenik, unea eta lekua aukeratu behar dituzu. Garrantzitsuak diren gauzentzat beti topatzen dugu astia eta tokia. Honegaz, berdin. Gozatze sexualari tarterik egiten ez badiogu, ardura ez digulako da. Edo egunaren amaierarako uzten dugulako. Jende batek txarto darama hau. Uste dute ez dela landu behar, baina zergaitik ez diogu emango beste ekintza batzuei ematen diegun garrantzi bera biluztu eta besarkaturik egoteari? Azkenik, bestelako oztoporik dagoen ikusi beharko litzateke; hau da, erekzio arazoak, haserrealdiak, mina sarketan... Desira oso konplexua da.

**Prozesu biologikoek zelan eragiten dute desiran?**

Adinak ez du zertan eragin desiran, eta eragiten badu, ideia estereotipatuak ditugulako da; gainera, batez ere menopausiagaz lotzen dugu hori, eta ez hainbeste *pitopausiagaz*. Normaltzat jotzen dugu gizonezko batzuk adinagaz erakargarriagoak izatea, baina emakumeekin ez da horrela izaten. Sexua ugalketagaz lotzearen ondorioz dator hori. Denbora askoan horrela ikusi da, baina, zorionez, hori aldatzen dabil eta sexua helburu sozialekin ere edukitzen dela normalizatuago dago orain; hau da, ez duela soilik ugaltzeko funtzioa. Bestalde, sexua sarketagaz lotzen da, gaztetasunagaz, edo indarragaz, eta uste da erreproduzitzeko adinean ez gaudenean sexurik ez dela egongo. Eta hori ideia okerra da. Psikologian *psikologia autokunplitua* legez ezagutzen dena gertatzen da; hau da, gure jarrera horretara bideratzen dugu. Baina adinagaz moldatu egiten gara gorputzaren aldaketetara. Gorputzak ugaltze sistema zaintzeari utziko dio adinagaz, baina sexu organoez gozatzen jarraitu daiteke.



# Durangaldeko emakume aitzindarien historiak

ANBOTOk gogora ekarri ditu urte askoan isilaraziak izan diren eskualdeko emakumeen bizitzak

**Jone Guenetxea** DURANGALDEA

Durangaldean badira aipamen berezi bat baino askoz gehiago merezi duten emakumeak. Bizi ziren sasoian merezi zuten aintzatespenik izan ez zutenak, baina gaur egun ezagunagoak egin direnak.

Julene Azpeitia maistraren kasuan, Durangoko haurreskolari bere izena ipini zioten, eta baita literatura txapelketa bati ere. Benita Uribarrenaren kasuan, Arte eta Historia Museo osteko parkeari bere izena ipini zioten.

Pilar Zubiaurre pertsona esanguratsua izan zen kulturgintzan. Mexikon hil zen, baina haren errautsak Garaira ekarri zituzten. Margarita Maturana eta Begoña Sopelana beharrizana zutenei laguntzen aritu ziren.

Erraketistak ere, 1940ko eta 1950eko sasoian ospe handia hartu zuten arren, ahanzturan geratu ziren.

Eta zer esanik ez erreportaje honetan agertzen den Martina Ibaibarriaga berriztarrari buruz; pelikula bateko gidoia dirudien bizitza izan zuen.




## Julene Azpeitia: Hezkuntza eta haur literatura

Euskararen transmisioa izan zen Julene Azpeitiaren (Zumaia, 1888-Bilbo, 1980) helburuetariko bat. Maistra titulua lortu zuen eta Alzarnazabalen hasi zen eskolak ematen. Handik, Bizkaiko ikastoletara igaro zen, Abadiñora, adibidez. Mexikon erbesteratua egon zen, eta, ondoren, Durangora ezkondu zen. Durangoko Udalak bere izena ipini zion haurreskolari.


Julene Azpeitia maistra,euskaltzalea eta idazlea izan zen.

## Benita Uribarrena: borrokalari antifaxista


Udalak Benita Uribarrena izena ipini zion Durangoko parke bati.

Benita Uribarrena Bollain (Durango, 1922-Perpignan, 2011) borrokalari antifaxista izan zen. 1937ko martxoaren 31ko Durangoko bonbardaketen ondoren erbestera joan zen, Frantziara, 15 urte zituela. Amagaz eta ahizpagaz batera, frankismoaren kontrako erresistentzian borrokatu zen. Alderdi komunistako kide izan zen klandestinitatean. Lan handia egin zuen Espainian arriskuan zegoen jendeari, presoei eta diktadurak heriotza zigorrera kondenaturikoei Frantziatik babesa emanez. Bidaia asko egin zuen bere burua arriskuan ipinita. Erbesteraturiko emakumeen jabekuntza bultzatzeko helburuz jardun zuen. Benita Uribarrenari Durangon eginiko omenaldi batean haren alaba Marinak gogoratu zuenez, Uribarrenak berba asko egiten zuen "askatasunaren aldeko borrokaz".

Lau seme-alabetatik gazteena zen Benita. Amak, Benita Bollainbek, egunkariak saltzen zituen Ezkurdiko kioskoan.

## Pilar Zubiaurre: kulturgilea

Pilar Zubiaurre (Garai, 1884-Mexiko, 1970) Madrilgo mugimendu kulturaleko partaide izan zen Errepublika sasoian. Literaturaren gainean hausnartu eta idatzi zuen, eta sektore feministetan ere ibili zen. Garain jaio zen arren, gaztetan Frantzia eta Ingalaterra bisitatu zituen bere nebekin batera, Ramon eta Valentin margolariak. Bidaia haietan artista asko ezagutu zuen. Bere neben bitartez, Espainiako XX. mendeko lehen hereneko giro kulturalean murgildu zen. Madrilen Los Sábados de Zubiaurre izeneko tertuliak antolatu, eta sasoiko elite intelektuala batzen zuen: José Ortega y Gasset, Pedro Salinas eta Diego Rivera, adibidez. Benito Pérez Galdósegaz eta Federico García Lorcagaz ere izan zuen tratua, eta Lorcak 'Tres Ciudades' poema saila eskaini zion. Era berean, emakumeen lehenengo elkarte kulturala sortu zuen: Lyceum Club Femenino. Bertan, Ernestina Champourcin eta María de Maeztu idazleekin hartu-emana sendotu zuen.


Pilar Zubiaurre eta Ricardo Gutiérrez Abascal senarra.

## Margarita Maturana: misiolari bidaiaria


Margarita María López de Maturana.

Margarita María Lopez de Maturana (Bilbo, 1884-Donostia, 1934) bilbotar gazteak 16 urte zituen Berrizko Vera Cruz komentura heldu zenean. Nautikako ikasle bat ahaztu zezan bidali zuen hara amak. Erabaki hark López de Maturanaren eta beste hainbat mojen bizitza aldatu zuen. Han bokazioa aurkitu, eta moja egin zen. Maturanaren ahaleginari eskerrak, ordura arte klausurako komentua zena misiolarien institutu bihurtu zen. Mesedeetako Misiolarien Kongregazioa sortu zuen. 1926an, sekula bidaiatu bako mojen espedizio bat irten zen Txinara. 1927an, beste bidaian batean, Mikronesiara joan ziren, eta 1928an Japoniara. Horrela hasi zuen misiolarien zabalkundea munduan. Misioetan, batez ere ebanjelizazioan jardun zuten, eta baita emakumeei hezkuntza eskaintzen ere. "Ebanjelizaziotik harago, pertsonen duintasuna aldarrikatu zuen, emakumeena bereziki", azaldu dute Berrizko Museoko arduradunek.

## Martina Ibaibarriaga: militarra


Martina Ibaibarriaga.

Martina Ibaibarriagaren (Berriz, 1788-Oña,1849) aita botikariak Bilboko Zazpi kaleetan zuen saltokia. 1808ko abuztuaren 16an Frantziako armada Bilbora sartu zen. Arpilatzen ari zirela, Martinaren aita eta neba hil zituzten. Gertaera hark Martinaren bizitza markatu zuen. Elena eta Ramona ahizpen aurrean mendekua zin egin zuen eta nebaren arropak jantzita Napoleonen tropen aurka borrokatzera joan zen. Manuel Martínez izena ipini zion bere buruari. Gamarran ondo borrokatu ondoren, kapitain izendatu zuten. Merino apaizaren partidagaz Burgosen borrokatu zen, eta Renovalesegaz Zaragozako setioan. Barbastrotik gertu larri zauritu zuten eta botikariak bere sekretua azaleratu zuen: emakumea zela. Bere agintari izandako Felix Asenjo tenienteagaz ezkondu zen eta Oñara joan ziren bizitzera.

## Erraketistak: kirol profesionala


2009an Durangoko Udalak erraketistei egindako omenaldia eta erakusketa.

1940ko eta 1950eko hamarkadetan, orduko gizarteak inposaturiko ereduak gaindituta, Euskal Herriko hainbat emakume erraketista aritu zen kirol profesionalean. Kuban eta Mexikon ere aritu ziren. Pilotalekuak jendez lepo betetzen zituzten. Durangaldean ere hainbat erraketista izan zen.

## Begoña Sopelana: El Salvadorren


Begoña Sopelana El Salvadorren.

Begoña Sopelana (Iurreta, 1944-1999) iurretarra aitzindaria izan zen kooperazio ekimenetan Euskal Herrian. El Salvadorren eman zituen 20 urteek aztarna sakona utzi zuten Las Vueltas herriko bizilagunen artean. Eta urte haietan El Salvadorren hezkuntzaren arloan egin zuen lana ez dute ahaztu bertakoek. Horren isla da Begoña Sopelanaren izena ipini ziotela 2012ko azaroan Las Vueltas analfabetismorik bako herri lez aldarrikatu zuten adierazpenari.

Sopelana 1968an joan zen lehenengoz El Salvadorrera. Ondoren, 1977an, Fe y Alegría erakundera batu (Jesuitek babestuta) eta berriro bueltatu zen, eremu marjinatuetan ikastetxeak sortzeko helburuagaz. 1980an gerra zibila hasi zen El Salvadorren, eta hurrengo lau urteetan errefuxiatuei laguntzen aritu zen. 1993an Euskal Herrira bueltatu behar izan zuen, aita eta ama zaintzera, baina harrezkero Hirugarren Mundua eta Pakea GKEaren bitartez bidaltzen zuen laguntza.


EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
MARTXOAK 8
Bizitza eusten dugunok
09:00 Plazatik Intxortara mendi ibilaldia.
Eman izena udaletxean edo
berdintasuna@elorrio.eus-en.
13:00 Menditik bueltan, plazan,
mokadua eta dantza Emy Larrondorekin:
"pintxada" feminista eta antirrazista.
Arratsaldean Mobilizazioa
(Asanblada Feministak deituta).
MARTXOAK 3
18:00 Iturri kultur etxean 'Bizitza erdigunean' erakusketaren
irekiera ekitaldia eta bisita gidatua gazteleraz.
Martxoaren 10ean, 18:00etan, bisita gidatua euskaraz.
MARTXOAK 7
14:45-15:45 Kiroldegiko gimnasioan emakumei
zuzendutako masterclass-a (izena eman behar da).
MARTXOAK 10-11-12
Iturri Kultur Etxean LILITH KODEA
Escape Room LH6-ko ikasleentzako.
BESTELAKOAK
Feminismoarekin eta berdintasunarekin lotutako nobedadeen
interesgunea Udal Liburutegian.
Martxo osoan zehar plaza libreak dauden kiroldegiko ikastaroetan
'ate irekiak' emakumeentzat. Informazioa kiroldegian.
Elorrioko udala




# KOLOREAK

Koloreztatu kolore-segidari jarraituta.



# LERROEI JARRAITU

Lerroaren gainetik marraztu.



# "Lehenengo lan hau oso biografiko geratu zaidala uste dut"

**MUSIKA** Eider Etxeandia 'Heitxi' musikari zornotzarrak 'Berreraikitze aroa' aurkeztuko du, martxoaren 7an, Zornotza Aretoan, etxekoen eta herrikideen artean; emanaldia 20:00etan hasiko da; bere lehenengo lan luzea da eta "urduri baina pozik" dago

**Aritz Maldonado** 'ZORNOTZA

Eider Etxeandia 'Heitxi'-k lotura estua du musikagaz, baina hau bere lehenengo aukera izan da bere proiektu pertsonal batean parte hartzeko. Bere lehenengo disko luzea, *Berreraikitze aroa,* Urdulizko (Bizkaia) Gaua estudioetan grabatu du. Baga Biga diskoetxeagaz kaleratu du lana. Zuzenekoetan boskote formatuan arituko da; Onditz Ugarte, Ane Falgan, Urtza Jauregi eta Garazi Arriaga musikari gazteekin batera igoko da taula gainera. Zornotzarrak doinu elektronikoekin uztartu ditu trikitia eta panderoa, eta, doinu zein letra aldetik, sentimendu desberdinak pizten dituen bidaia bat proposatzen du, argiagoa edo ilunagoa dena momentuka.

**Zer dakar 'Berreraikitze aroa' lanak?**

Intro bat eta bederatzi abestiz osaturiko diskoa da; beraz, nahiko luzea lehenengo lan bat izateko. Batez ere, orokorrean, izateak berreraikitzeko momentuari buruz berba egiten dut; uste dut oso biografikoa geratu dela, eta bizitzan zehar aurkitu ditudan esperientzia desberdinek nire izatearen aldaketan izan duten eragina ere badago. Abesti desberdinak daude, baladak daude, abesti dramatikoak ere bai, baina dantzan egiteko abestiak ere badaude. Bizi izandako momentuaren arabera sortu ditut abestiak. Ez dago estilo finko bat, elektronika dago, euskal musika tradizionala ere bai, trikitia eta panderoa ia abesti guztietan ageri dira. Diskoak pop ikutu bat ere badu, kontzienteki egin ez dudan arren; igarri egiten da nik zer musika mota entzun izan dudan. Ahizpak eta ingurukoek diskoa entzun dutenean, hori esan didate behintzat.

**Musikalki ere egin duzu berreraikitze bat doinu tradizionalagoetatik garaikideagoetara?**

Musikagaz argi izan dut, zelanbait, orain gertatzen dabilen aldaketa hori kontuan hartu gura nuela, baina beti ere kontuan izanda nondik gatozen. Nik nahiko presente izan ditut musikan bai trikitia eta baita panderoa ere, eta horri eutsi gura nion. Garaikidearen eta tradizionalaren arteko lotura horri eutsi gura nion.

**Diskoan hainbat kolaborazio izan duzu; tartean, Ines Osinagarena. Bere sasoian, berak ere egin zuen mundu bi horiek batzeko ahalegina.**



'Heitxi'. IRATXE ETXEANDIA

Estudioan sartu nintzenean segituan hasi nintzen Gose taldearen eta Inesen kantak entzuten, uste nuelako momentu hartan aitzindariak izan zirela horrelako zerbait sortzen. Hortik abiatuta, Ines Osinagaren bakarkako proiektua ere nahikotxo jarraitu dut, eta horrek animatu egin ninduen beragaz hartu-emanetan jartzera. 'Ni ez nau inork ere ezagutzen' esaten nion neure buruari, 'kolaborazioa eskatu eta antzarak ferratzera bidaliko nau'. Nire ahizpak proiektuaren nondik norakoak azaltzeko idatzi zion, eta segituan erantzun zuen baietz, abestia entzun barik! Super ondo. Liherregaz (Libe Hernando) ere berdin. Lehenengo diskotik jarraitu dut, nire ahizpak erakutsi eta gero, nahiz eta ez den % 100ean nik egiten dudan estiloan mugitzen, baina Liherren disko guztiak irentsi ditut, eta baita *Bele* bere bakarkako proiektuaren diskoa ere. Uste genuen garrantzitsua zela lehenengo lanean kolaborazioak izatea, baliagarriak izan daitezkeelako gure musika zabaltzeko. Hor ere ahizpak lagundu zidan. Liherri idatzi, eta hark ere baietz esan zuen, abestia entzun barik.

**"OHOLTZA GAINEAN EMAKUMEAK IKUSIZ GERO, ERRAZAGO SORTUKO DIRA ERREFERENTEAK"**

Diskoaren sortze prozesuko une zoragarri bi iruditzen zaizkit horiek. Jendeak estrategiak izaten ditu euren lanak kaleratzerakoan, eta horregaitik uste nuen ez nuela enkajatuko eta ezezkoa jasoko nuela.

**Martxoaren 7an zuzenean aurkeztuko duzu. Gogotsu?**

Gogotsu, bai, baina orain urduri ere banago. Alde batetik, motibatu egiten nau etxean hasteak. Baina, beste alde batetik, horrek presioa ere eragiten dit; ezagunen iritziak eragina du nigan. Urduri nago, gauza asko erakutsi gura dudalako, baina gogotsu nago. Azken ikutuak ematen gabiltza.

**Banda osatu duzu zuzenekoetarako.**

Taldean bost emakume musikari izango gara. Hasieratik argi nuen banda bat osatu gura nuela, musikariekin, zuzeneko organiko bat gura nuelako. Oholtza gainean denak emakumeak izatea polita izango zela uste nuen, eta beharrezkoa. Emakumezko asko dago musika-tresnak jotzen dituztenak, baina gatxagoa da topatzea. Emakumeak eta gazteak batu gura nituen. Horrela hasi ginen, Zornotzan bertan topatzen. Erromeria talde batean ere banago, eta hortik hasi ginen. Musika Eskolan ere galdetu nuen; udan, Gernikako Mikosis taldeagaz jo genuen, pare bat bider, eta asko gustatu zitzaidan Garazik bateria zelan jotzen duen. Galdetu, eta prest agertu zen.

Umeentzat ere ondo dago erreferentziak sortzea, jakina; eszenatoki gainean, telebistan edo bestelako espazio publikoetan emakumerik ikusi ezik, beti da gatxagoa.

**Iratxe ahizpagaz hartu-eman sendoa duzu, eta hasieratik egon da proiektuan. Zer da musika zuentzat?**

Iratxe eta biok puntu batera heldu gara, zeinetan musika bizitzako momentu desberdinak eta sentimenduak kudeatzeko erreminta bat den. Osatze metodo bat da guretzat. Mundu guztiarentzako ere berdina dela uste dut, baina momentu bakoitzean musika estilo desberdinak entzuten ditugu; pozik gaudenean abesti alaiak entzuten ditugu, eta triste gaudenean tristeagoak, eta esango nuke horregaitik dela, momentu desberdinak kudeatzeko.

# Dickensen 'Gabonetako ipuina' Elorrion ikusgai

**ANTZERKIA** Khea Ziater konpainiak Charles Dickensen 'Gabonetako ipuina' eleberriaren egokitzapena taularatuko du Elorrioko Arriolan; konpainiak otsailean estreinatu du haurrentzako lehenengo lana; emanaldia domekan izango da, martxoak 2, 17:00etan

**A. M.** ELORRIO

Khea Ziater antzerki konpainiaren ezaugarri nagusietariko bat antzerkia eta kode zinematografikoak uztartzen dituela da. Hain zuzen ere, hamarkada baino gehiago daramate horretan; *Scrooge eta mamuak* haurrei zuzenduriko lehenengo lana dute. Charles Dickensen *Gabonetako ipuina* eleberriaren egokitzapena da. "Dickensen eleberria gure garaira ekarri dugu, gure sorkuntzen estilora eta forman eszenaratua; hau da, kode zinematografikoak eta antzerkia uztartuta. Kasu honetan, pauso bat harago joan gara eta aktoreak, pantaila eta panpinak uztartu ditugu, konbinazio hirukoitz batean", azaldu dute konpainiakoek.


'Scrooge eta mamuak'. KHEA ZIATER

Istorioak Ebenezer Scrooge bankari diruzalearen bidaia kontatzen du. Bere bazkide zen Marleyren mamuak azken aukera bat eskaintzen dio pertsona ona bilakatzeko. Na Gomes eta Sandra Fdez Aguirre dira aktoreak; Alex Gerediagak zuzendu du lana eta Kepa Errastik euskaratu du gidoia.

**Estreinaldia otsailean**

Otsailean estreinatu zuten *Scrooge eta mamuak,* Sopelan (Bizkaia). Harrezkero, hainbat emanaldi egin dute. Elorriokoaz gainera, datozen asteetan beste emanaldi batzuk egingo dituzte Durangaldean; hala nola Durangon (martxoak 16), Berrizen (apirilak 4) eta Zornotzan (apirilak 5).


Joseba Sarrionandia eta Peru Magdalena, museoan.

## Mikel Lertxundiren obra osatuko duen bidaia poetikoa Durangon

**ERAKUSKETA** Mikel Lertxundiren 'Formatik haratago' erakusketaren harira, ekintza sorta antolatu dute

**A. M.** DURANGO

Mikel Lertxundi artista bizkaitarraren *Formatik haratago* erakusketa osatzen duen ekintza sorta antolatu dute Durangoko Arte eta Historia museoan. Erakusketa martxoaren 30era bitartean egongo da ikusgai. Lertxundiren ibilbidea eta obra sakonago ezagutzeko, ekintza osagarriak antolatu dituzte. Horrela, otsailaren 27an eta martxoaren 22an bisita gidatuak egingo ditu bisitarientzat; bisita gidatu horiek 18:00etan eta 13:00etan izango dira, hurrenez hurren (gaztelaniaz 19:00etan eta 12:00etan). Horrez gainera, Elena Detalleresek *Volumen, papel y juego* tailerra emango du martxoaren 19an. "Bolumena sortuko dugu hainbat materialegaz, eta teknikak konbinatuko ditugu, lengoaia propioak eta orekak bilatuta", azaldu dute museoko arduradunek. Ekintza hauetan parte hartzeko, izena eman beharko da aurretik. Erakustaldia borobiltzeko, poesia emanaldi musikatua egingo dute martxoaren 13an. Joseba Sarrionandia eta Peru Magdalena idazleek eta Eunate Zarrabeitia biolinistak parte hartuko dute. Emanaldia 19:00etan izango da.


GAI LIBREAN

**AINHOA ZABARTE NARBAIZA** BEHARGINA

## Mikaela eta Carmen

1940ko martxoaren 30a, zapatua. Goierriko auzoan dagoen Arrigorrieta baserrian bizi ziren senideekin batera Mikaela Arizmendiarrieta Ojanguren eta bere alaba Carmen Landa Arizmendiarrieta. 85 urte beteko dira aizkoraz hil zituztenetik ama-alabak. 51 urte zituen Mikaelak eta 13 urte Carmenek hilketa izan zenean. Erailketa matxista hau ez zen sekula argitu, eta hori gutxi ez, eta oihartzunik apenas ez zuen izan sasoiko medioetan. Egunkariren batean lau bat lerro hartu zituen albisteak, besterik ez.

Hilketa, bortitza izateaz gain, sekula ez zen argitu; imajina dezakegu emakumeenganako indarkeria estrukturalaren ondorioetako bat izan zelako gerta zitekeela hau ere. Erailketa matxista oroituz, akatsetatik ikasi eta berriro gerta ez daitezen pausoak ematen hasi gaitezke bi emakume hauek gogora ekarriz. Horrela, oroimenera ekarrita, Mikaela Arizmendiarrieta eta Carmen Landari zor diegun duintasuna itzuli diezaiekegu.

**"85 URTE BETEKO DIRA AIZKORAZ HIL ZITUZTENETIK AMA-ALABAK. 51 URTE ZITUEN MIKAELAK ETA 13 URTE CARMENEK"**

**"NEURE BURUARI GALDETZEN DIOT SARRI, EA ZENBATEK IZANGO ZUTEN HERRIAN HILKETA HONEN BERRI"**

Neure buruari galdetzen diot sarri, ea zenbatek izango zuten herrian hilketa honen berri eta zergatik ez den iritsi jenerazioz jenerazio gure historiaren parte izatera. Ezin uka sasoiak aldatu egin direla, gainera asko, eta ez dela berdina halako gertaera bat egun, edo duela 85 urte. Egun hitz egin, salatu eta kalera ateratzen garen bezala, orduan isilik mantenduko zen akaso.

Erailketa matxistak direnean kalera atera ohi gara eta mobilizazio zein elkarretaratzeak egiten ditugu. Memoria idatziz eta landuz egiten da, gogoratuz eta publiko eginez. Horretarako, ahanzturan geratu ez daitezen helburuarekin, Dominika Talde Feministak eskaera egin zion udalari duela bost urte. Eskatu zion bi emakume hauen izenak herrira itzultzeko; hala, herritarrek –nerabe, gazte, zein helduek– Zaldibarren izandako gertakizun krudel eta ankerra gogora ekarri eta bi emakume hauen izenak herriko oroimenean txertatzeko.

# INAUTERIETAKO EGITARAUAK



**DURANGALDEA Desfilea**
Durangaldeko kale eta bazterrak mozorroz beteko dira datozen egunetan. Berrizen, Elorrion eta Otxandion mozorro desfileak antolatu dituzte biharko. Zaldibarren eta Atxondon mozorro lehiaketak egingo dituzte, martxoaren 4an.
*Martxoak 1, zapatua*

## ABADIÑO

### OTSAILAK 28

**17:00 Diskofesta.**
*Traña plazan.*

**17:00 Diskofesta.**
*Probalekuan.*

**17:00 Tailerrak.**
*Probalekuan.*

**17:15 Txokolatada.**
*Traña plazan. (Traña-Matiena H.E.ko IGEK antolatuta)*

**18:30 Txokolatada.**
*(Zelaieta H.E.ko IGEK antolatuta*

### MARTXOAK 1

**14:00 Maleta siku.**
*Probalekuan.*

**Ondoren, Bingo Musikatua.**
*(Katalamixon Aisialdi Elkartearen eskutik)*

**18:00 Joselontxos Txaranga.**
*Zelaietan.*

**20:00 Gora Herria erromeria.**
*Traña-Matiena Trañabarren etorbidean.*

## ATXONDO

### OTSAILAK 28

**16:30 Animazioa eta txokolatea.**
*Apatako plazan. (Ludotekaren eskutik)*

### MARTXOAK 4

**16:30 Photocalla.**
*Plazan.*

**17:30 Diskofesta eta mozorro desfilea. Sariak egongo dira parte hartzaile guztientzat.**
*Plazan.*

## BERRIZ

### OTSAILAK 28

**10:30 Haurreskolakoen kalejira.**

**11:00 Mozorroen kalejira.**
*Berrizko kaleetatik zehar. (Euria egiten badu bertan behera geldituko da)*

**Ondoren, eskolako ikasleen ekitaldia.**
*Berrizburu Kiroldegian.*

**12:00-13:30 TRENA.**
*Olakuetatik Elizondoraino eta Elizondotik Olakuetaraino.*

**18:30 Musika eta jaia EUSKAL DISKOFESTAGAZ.**
*Frontoian.*
*Ondoren, txokolate dastatzea.*

### MARTXOAK 1

**12:00 Kuadrillen topaketa.**
*Olakueta plazan.*

**13:00 Mozorro lehiaketa.**
*Probalekuan.*

**14:00 Bazkari herrikoia.**
*Frontoian.*

**17:30 DJ ROBERT.**
*Probalekuan.*

**19:00 DJ ROKA.**
*Probalekuan.*

## DURANGO

### MARTXOAK 1

**11:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00 Jolas Librerako Gunea.**
*Landako Gunean.*

**12:00 Surrandietako maskarak egiteko tailerra.**
*Tabiran. (Tabirako Auzo Elkartearen eskutik)*

**16:00 - 20:00 Umeentzako parkea.**
*Landako Gunean.*

**18:00 Surrandien eta Hartzaren konpartsaren kalejira txistulariekin eta bandagaz.**
*(Kriskitin, Jaizale eta Tabira Musika Bandaren eskutik)*
*Ibilbidea: Merkatu Plaza, Uribarri kalea, Landako Guneko Plaza, Egurrezko Zubia, Plateruen Plaza, Ermodo, Madalena (dantzak), Ermodo, Zumalakarregi kalea, Ezkurdi Plaza (dantzak), Herriko Gudarien kalea, Josemiel Barandiaran (dantzak), San Agustinalde, Barrenkalea, Andra Mari, Artekale, Zeharkale, Andra Mari (dantzak).*

**20:00 Erromeria: Iratzar taldea.**
*Andra Marian.*

### MARTXOAK 2

**11:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00 Jolas Librerako Gunea.**
*Landako Gunean.*

**11:30 - 14:00 Tailerra: Makillaje artistikoa.**
*Otamotzena parkean.*
*(Herria Auzo Elkartearen Eskutik)*

**16:00 - 20:00 Umeentzako parkea.**
*Landako Gunean.*

### MARTXOAK 3

**11:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00 Jolas Librerako Gunea.**
*Landako Gunean*

**16:00 - 20:00 Umeentzako parkea.**
*Landako Gunean.*

### MARTXOAK 4

**11:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00 Jolas Librerako Gunea.**
*Landako Gunean.*

**11:30 - 14:00 Globoflexia tailerra.**
*Madalenan. Euria bada, Francisco Ibarrako arkupeetan. (Auzo Alai elkartearen eskutik)*

**16:00 - 20:00 Umeentzako parkea.**
*Landako Gunean.*

**17:00 - 19:00 'Denboraren Bankua' tailerra.**
*Landako Gunean.*

**17:00 DJ saioa.**
*Andra Mariko elizpean.*

## ELORRIO

### MARTXOAK 1

**13:00 Poteoa, herrian zehar.**

**15:00 Bazkaria.**

**18:00 Argazkia, Gaztetxean. Ondoren omenaldia.**

**18:00-22:00 DJ URKO.**

***Herriko plazan.***

**19:30 Haurren bakarkako mozorro lehiaketako sari banaketa.**
*(Herriko tabernek antolatuta)*

**22:00 Helduen mozorro lehiaketako sari banaketa.**
*(Herriko tabernek antolatuta).*

### MARTXOAK 4

**10:45 Ikastetxeetako umeen ikuskizunak: *Lourdesko Ama Ikastetxea eta Maria Bitarteko Ikastetxea, Txintxirri Ikastola eta Herri Eskola.***
*Plazan.*

**10:30-13:00 JON DJa.**
*Nizeto Urkizu aparkalekuan.*

**18:00-21:00 Luhartz.**
*Herriko plazan.*

**18:15 Txokolatada.**
*(La esperanza elkarteak lagunduta)*

## IURRETA

### MARTXOAK 1

**12:30 Poteo girotua.**
*Kaskoan.*

**15:00 Bazkaria. Ondoren, bingoa.**
*Karpan.*

**17:30 Musika.**
*Kaskoan zehar.*

### MARTXOAK 3

**19:00 Momotxorroak: *Kaos baten istorioa bideo emanaldia.***
*Ibarretxe kultur etxean.*

### MARTXOAK 4

**17:00 Osaba Patxikuren etxe xaharra antzerki magikoa.**

**19:00 Eingo taldea.**
*Herritik zehar.*



**DURANGO** **Kalejira**
Surrandien eta Hartzaren konpartsak kalejira egingo du Durangon. Kriskitin dantza taldeak bultzatuta sortu zen konpartsa orain 26 urte, eta Jaizale txistulari elkartea eta Durangoko Musika Banda dituzte bidelagun.
*Martxoak 1, zapatua, Merkatu Plazan, 18:00etan.*

## MALLABIA

### MARTXOAK 1

**14:30 Mozorro bazkari autogestionatua.**
*Herriko frontoian.*

**17:30-20:30 Kale animazioa. DJ Tracka.**
*(Antolatzailea: Udala).*

### MARTXOAK 4

**14:45-15:45 Eriz magoa.**
*Eskolan.*

**16:30 Txokolatada.**
*Herriko frontoian. (Antolatzaileak: Udala eta guraso elkartea)*

**17:00-20:30 Erromeria DJ Ohian Vegagaz.**
*Herriko frontoian.*

**17:30 Playback-mozorro lehiaketa.**

### MARTXOAREN 5ETIK 8RA

**Tenis Txapelketa.**
*Eskolan. (Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T)*

## MAÑARIA

### MARTXOAK 1

**13:00 Trikitilariak.**

**14:30 Bazkari herrikoia.**
*Txartelak herriko taskan, otsailaren 23ra bitartean.*

**16:30 Jolasak.**

**18:30 Sasi-bereziri harrera. Ondoren, tostadak.**

## OTXANDIO

### MARTXOAK 1

**12:30 Giltza trukea eta txupinazoa.** ***6. mailakoen eskutik.***

**Jarraian, Udal Bandagaz animazioa.**

**13:00 III. Mozorro Desfilea.**

**15:00 Herri bazkaria.**
*Izena emateko azken eguna otsailaren 23a.*

**18:00 DJ Raizti.**

## ZALDIBAR

### MARTXOAK 1

**18:00 Gaur Jaia diskofesta.**
*Udaletxeko plazan. (Euria bada, eskolan).*

### MARTXOAK 4

**17:00 Mozorro lehiaketa.**
*Udaletxeko plazan. (Euria bada, eskolan)*

**17:30 Sari banaketa.**

**17:45 Diskopuntx.**

## ZORNOTZA

### OTSAILAK 28

**13:30 Viva Brasil bazkari berezia.**
*Nafarroa zentroko jatetxean.*

**16:00 Mozorro lehiaketa.**
*Nafarroa zentroan.*

**17:00 Eskulan tailerra.**
*Ludotekan.*

**18:00 Gaztedi berri fanfarrea.**
*Abasolo apezpikutik.*

**19:00 Perubeleren aurkezpena eta kalejira.**
*Zelaieta parketik.*

**19:30 Sagardoa eta txorizoa.**
*Zelaieta parkean.*

**20:00 DJ Xaibor.**
*Zelaieta parkean.*

### MARTXOAK 1

**12:30 Inauteri dantzak Udabarri dantza taldeagaz eta Kittugaz.**
*Herritik zehar.*

**17:00 Inauterietako collagea tailerra.**
*Gaztetxokoan.*

**17:00 Inauterietako photocalla.**
*Zelaieta parkean*

**18:00 Zirku gala umeentzako ikuskizuna.** ***Zelaieta parkean.***

**19:00 Zezilia Gallartzagoitia triki piu band.** ***San Juan kalean.***

**19:00 Zornotzako musika banda.**
*Euskal Herria plazan.*

**20:30 Luhartz.** ***Zelaieta parkean.***

### MARTXOAK 2

**13:00 Inauteri dantzak Udabarri dantza taldeagaz.**
*Zelaieta parkean.*

### MARTXOAK 4

**11:30 Viva Brasil desfilea.**
*Nafarroa zentroan.*

**17:00 Polaroid photocall eta instagram mozorro lehiaketa + eskulan tailerra.**
*Ludotekan.*

**17:00 Eskulan tailerra.**
*Gaztetxokoan.*

**18:00 Tor eta Txaborro magoen 'Aztikeriak' umeentzako ikuskizuna.**
*Zelaieta parkean.*

**19:00 Perubeleren agurra.**
*Zubiondotik Zelaieta parkeko kioskora.*

## ZINEMA




**BERRIZ**
KULTUR ETXEA
**Flow, un mundo que salvar**
Domeka 2: 17:00.

**DURANGO**
ZUGAZA ZINEMA
**El secreto del orfebre**
Barikua 28: 18:00, 20:30.
Zapatua 1: 17:15, 19:30, 21:30.
Domeka 2: 17:15, 19:30.
Astelehena 3: 18:00, 20:15.
Martitzena 4: 18:00, 20:15.
Eguaztena 5: 19:00.
**Mi única familia**
Barikua 28: 18:00, 20:30.
Zapatua 1: 19:30, 21:30.
Domeka 2: 19:30.
Astelehena 3: 18:00, 20:15.
Martitzena 4: 18:00, 20:15.
Eguaztena 5: 19:00.
**Amenaza en el aire**
Barikua 28: 18:00, 20:30.
Zapatua 1: 19:30, 21:30.
Domeka 2: 19:30.
Astelehena 3: 18.00, 20:15.
Martitzena 4: 18:00, 20:15.
**Paddington: aventura en la selva**
Zapatua 1: 17:00.
Domeka 2: 17:00.
**Los exploradores**
Zapatua 1: 17:15.
Domeka 2:17:15.
**La ciénaga**
Eguaztena 5: 19:00.

**ELORRIO**
ARRIOLA ANTZOKIA
**Las chicas de la estación**
Zapatua 1: 20:00.
Domeka 2: 20:00.
Astelehena 3: 20:00.

**ZORNOTZA**
ZORNOTZA ARETOA
**La mitad de Ana**
Domeka 2: 20:00.
Astelehena 3: 20:15.
**Los exploradores**
Domeka 2: 17:00.
**La luz que imaginamos**
Eguena 6: 20:15.





Atzo Durangoko elkartegian egindako aurkezpen ekitaldia.

# Durangaldeko Kopa jaio da, zortzi lasterketagaz

**MENDI LASTERKETAK** Eskualdeko mendi lasterketa guztiekin Durangaldeko Kopa sortu dute. Sailkapen, sari eta webgune propioak izango ditu. Tankera honetako Bizkaiko bigarren txapelketa da, Enkarterrietan dagoenagaz batera

**Joseba Derteano** DURANGALDEA

Eskualdeko mendi lasterketen arteko lankidetza iaz erne zen, Atxondoko, Mañariko eta Zornotzako probak batzen zituen Urkiola Kopagaz. Aurten, eskualde osora zabaldu dute deialdia, eta harrera ezin hobea izan du. Mallabiko, Berrizko, Zaldibarko, Garaiko eta Elorrioko lasterketak egitasmora batu dira eta denen artean Durangaldeko Kopa sortu dute. Atzo aurkeztu zuten ekimena, Durangon. Bertan, mendi lasterketetako antolatzaileak eta probak babesten dituzten udaletako, Mankomunitateko eta Urkiola Landa Garapeneko ordezkariak batu ziren.

Kopak sailkapen propioa izango du eta gutxienez lau probatan parte hartu behar da sailkapen nagusian sartzeko. Kopa bost hilabeteren barruan lehiatuko da, maiatzetik urrira. Urriko azken txanpa bereziki intentsoa izango da, hiru probagaz: 5ean Sorginen Lasterketa, 18an Aramotz, eta 25ean Aldapegora. Koparen inguruko informazioa emateko, *www.durangaldekokopa.com* webgunea sortu dute. Lasterketa bakoitzaren ondoren, webgune horretan eguneratuko dituzte sailkapenak.

Aterki beraren pean aritzea "denontzat positiboa" dela dio Sorginen Lasterketako antolatzailea den Jon Aranburuk. "Baliabideak partekatzeko eta batak besteari laguntzeko aukera ematen digu", gaineratu du. Horregaz batera, Kopak amua izan gura du korrikalarientzat. Antolatzaileek uste dute eskualdeko lasterketa gehiagotan parte hartzeko pizgarria izan daitekeela.

Koparen helburuetariko bat Durangaldeko mendiak ezagutaraztea da, Urdaibai barnean dagoen Oiz menditik hasita Urkiolako Parke Naturalean dauden Anbotoko eta Aramotzeko mendilerroetaraino. Aldi berean, baso bideak berreskuratzea eta turismo sostengarria bultzatzea ere badituzte helburu lez.

Euskal Herrian, Gipuzkoako Goierri Kopa da mota honetako ekimenen aitzindaria. 2016an sortu zuten eta iaz 10 proba izan zituen. Bizkaian Enkarterri Kopa ere badago, hainbat mendi martxa eta lasterketa hartzen dituela.

## KOPAKO EGUTEGIA

**MAIATZAK 17**
**7 Pago mendi lasterketa (Mallabia)**
• 25 km - 1.400m+

**EKAINAK 21**
**Amaraune mendi lasterketa (Berriz)**
• 21 km - 1.130 m+

**UZTAILAK 12**
**ZalduTrail lasterketa (Zaldibar)**
• 19,62 km - 1.180 m+

**UZTAILAK 19**
**Asto Trail (Garai)**
• 26 km - 1.400 m+

**IRAILAK 20**
**Mañaritik Atxetara (Mañaria)**
• 22 km - 2.000 m+

**URRIAK 5**
**Sorginen Lasterketa (Atxondo-Axpe)**
• 21 km - 1.700 m+

**URRIAK 18**
**Aramotz Mendi Lasterketa (Zornotza)**
• 22 km - 1.300 m+

**URRIAK 25**
**Aldapegora Mendi Trail (Elorrio))**
• 26 km - 1.700 m+

## Zeintzuk onura ikusten dizkiozu Durangaldeko Kopari?



**GAIZKA BARRAINKUA** GARAIKO ASTO TRAIL LASTERKETA

"Durangaldeko Koparen sorrerak abantailak baino ez dituela ekarriko uste dugu. Garai kopa honetako herririk txikiena izanda ere, Astro Trailegaz gure inguruan ditugun paisaiak, bidezidorrak eta Oiz mendilerroa erakutsi gura ditugu, eta Kopari eskerrak lasterketa luzeko partaideen kopurua handitu gura dugu".



**ZUTOIA ODRIOZOLA** ELORRIOKO ALDAPEGORA LASTERKETA

"Proba maiatzetik urrira aldatu behar izan dugu. Bestela, ezingo ginen Udalatxetik pasatu, sai zuriarengaitik. Hiru urtean hiru data izatea ez da egokiena eta apur bat triste geunden. Baina, orain, Kopan sartuta, geurea da azken proba. Gauza asko Elorrion erabaki daitezke. Poza eta indar handia eman dizkigu"



**AIERT AGIRRE** BERRIZKO AMARAUNE LASTERKETA

"Oiz mendian txoko ikusgarriak ditugu baina beharbada ez du Urkiolako Parke Naturalak duen sona. Korrikalariak erakartzea gehiago kostatzen da. Kopagaz, parke naturalekora doazenek lasterketa gehiagotan ere parte hartu beharko dute sailkapenean sartzeko, eta onuragarria izan daiteke guretzat".



**NORA NARBAIZA** ZALDIBARKO ZALDUTRAIL LASTERKETA

"Aukera paregabea ematen du eskualdea ezagutzeko, lasterketa bakoitzak Durangaldeko inguru bat zeharkatzen duelako. Lasterketa guztien arteko saretzea onuragarria izango dela deritzogu. Gainera, gure lasterketaren zabalpena indartu, eta parte hartzea bultzatzeko aukera ezin hobea ere bada".



**IÑIGO PRADERA** 7PAGO MENDI LASTERKETA

"Durangaldeko Koparen sorrera onuragarria izango da guretzat eta baita gainerako herrientzat ere. Kirolari esker herri eta mendi berriak ezagutzeko aukera ederra izan daiteke. 7 Pagok aurreko urtean eduki zuen harrerakin gustora geratu ginen eta, hori dela eta, aurten hobetzeko esperantzagaz gatoz".

# "Aurkaria aztertu, eta nire aukera itxaron nuen"

**URTZI ISPIZUA GUTSENS (DURANGO, 2000)** ARTE MARTZIALAK

Euskadiko Muay Thai Txapelketarako prestakuntza legez joan zen Thailandiara. Bere lehenengo borrokaldi profesionala K.O. bidez irabazita bueltatu da handik

**Joseba Derteano** DURANGO

Bera baino zazpi kilo gehiagoko errusiar baten kontra, eskua apurtuta zuela eta lehenengo roundean lurrera birritan jausita. Panorama beltza zirudien, baina txapeldun handien erreakzioa izan zuen. Bigarren roundean belaunagaz masailean jotako kolpe indartsu bati esker irabazi zuen.

**Zelan zaletu zinen Muay Thaira?**

Bizi osoan errugbian ibili naiz, DRTn. Hernia bat izan nuen hankan, eta korrika ondo egin ezin nuenez, kickboxingera aldatu nintzen. Handik gutxira, Muay Thaian zentratu nintzen. Bizitzeko modu bat da eta asko gustatu zitzaidan.

**Zelan sortu zaizu Thailandiara joateko aukera?**

Orain urte bi joan nintzen lehenengoz, eskualdeko beste batzuekin. Han borrokalari profesional biren laguntza izan genuen. Mikel Fernandez nafarrak eta Albert Campos katalanak asko lagundu eta tratu bikaina eman ziguten. Esperientzia horregaz eta haiek han zeudela jakinda, orain gustura joan naiz bakarrik. Urtebeteko eszedentzia hartu dut. 24 urtegaz gaztea naiz, baina kirol mundurako ez hain gaztea. Hau egiteko momentua oraintxe zela sentitzen nuen. Hilabete bi eman ditut han, Camposen gimnasioan entrenatzen.




Urtzi Ispizua, Zirkin gimnasioan.

**Noiz eskaini zizuten borrokaldi profesionala egiteko aukera?**

Lehenengo egunetik esan zidaten borrokaldi bat bilatu ahal zidatela. Hasieran ez neukan pentsatuta borroka egitea. Datorren hilean Euskadiko txapelketa izango da eta harako prestatu gura nuen. Baina halako konfiantza eskaini eta hainbeste lagundu zidaten ze, borrokatzea onartu nuela. Esker ona adierazteko modua izan zen.

**Zer zenekien aurkariari buruz?**

Ezer ere ez! Gurago nuen ezer jakin ez. Egun normal bat balitz lez hartu nuen, entrenamendu bat izango balitz lez, baina beste toki batean. Urduritasunari aurre egiteko modua izan zen hori. Tokian bertan jakin nuen bere berri. Errusiarra zen eta nik baino zazpi kilo gehiago zituen.

**Phuket herriko Patong Boxing estadioan izan zen borrokaldia. Zelan gogoratzen duzu?**

Lehenengo rounda oso gogorra izan zen. Eskuagaz ondo kolpatu ninduen eta round osoan erdi zorabiatuta egon nintzen. Birritan joan nintzen lurrera, eta euretariko batean kontaketa egin zidaten. Gainera, roundeko une batean eskua apurtu nuen eta halantxik amaitu nuen borrokaldia. Roundari zutunik eutsi nion. Atsedenaldian gainetik izotza bota zidaten eta bizkortu egin nintzen. Bigarren roundean aurkaria aztertzen ahalegindu nintzen. Bere estiloari erreparatu nion. Sarritan esku bera luzatzen zuela ohartu nintzen. Nire aukera itxaron nuen. Esku hori luzatu zuen hurrengoan, belauna sartu nion eta hortxe amaitu zen borrokaldia.

**Zelan apurtu zenuen eskua?**

Kolpe bat eman nion, buruan, eta atzamar lodia okertu nuen. Thailandian bertan nengoela egin zidaten ebakuntza.

**Zelan eutsi zenion minari?**

Momentu horretan ez duzu minik igartzen. Zer egin, zelan irabazi, horretan bakarrik duzu burua.

**Zelan gogoratzen duzu borrokaldia amaitu zen unea?**

Itzela izan zen. Lehenengo rounda ikusita, ikusleek uste zuten aurkariak edozein unetan botako ninduela. Baina oso ondo errekuperatu nintzela ikusita, zutunik ipini eta txaloka hasi ziren. Borrokaldia amaitu zenean poz ikaragarria hartu nuen. Han asko lagundu didan entrenatzaile bati eman nion lehenengo besarkada. Bere konfiantzarik barik ez nuen lortuko.

**Aurrera begira, zer asmo duzu?**

Hilabete bi inguru joango dira eskua errekuperatu orduko. Gero, Thailandiara bueltatu gura dut beste borrokaren bat egiteko.

**"BERE ESTILOA AZTERTU NUEN. SARRITAN ESKU BERA LUZATZEN ZUELA KONTURATU NINTZEN"**



JOKALDIA

**DANI NUÑEZ** KICKBOXINGA ETA BOXEOA

## Thailandiako egonaldiak

Zorionak, Urtzi! Thailandian lortu duzun garaipena itzela eta merezitakoa izan da. Zure lorpenak nik neuk Thailandian egindako egonaldiak gogoratzeko beta eman dit eta horri buruz idatzi nahi nuke oraingoan. Bost bider egon naiz Thailandian, azkenekoz aurten bertan. Egonaldiak, Asiako hego-ekialdeko herri eta uharte berriak ezagutzeko ez ezik, Muay Thai eta kickboxing gimnasioetan entrenamendu modu berriak ikasten jarraitzeko aprobetxatu ditut. Tratu ezin hobea eskaini didate beti.

Muay Thaia kirolik garrantzitsuena da Thailandian, kirol erregea, hemen futbola den moduan. Gainera, bizitzeko modu bat da. Umeak txikitatik hasten dira kirol hau ezagutzen eta trebatzen. Nagusien borrokaldiek estadioak betetzen dituzte eta munduko borrokalari profesional onenetakoak Thailandiara joaten dira euren borrokaldiak prestatzera. Adibide horiek erakusten dute kirol honek han duen hedadura.

**"BOST BIDER EGON NAIZ THAILANDIAN, AZKENEKOZ AURTEN. TRATU EZIN HOBEA ESKAINI DIDATE BETI"**

**"MUAY THAIA KIROL GARRANTZITSUA DA THAILANDIAN, KIROL ERREGEA, HEMEN FUTBOLA DEN MODUAN"**

Sarritan egon arren, oraindik asko geratzen zait ezagutzeko. Laster berriro itzuliko naiz, batez ere thailandiarren kultura eta kirola ikasten jarraitzeko. Guztiz maiteminduta nauka Asiako hego-ekialdeko herrialdeak. Thai hitz egiten eta thailandiar kulturari buruz gehiago ikasten hasi naiz hemen.

Gure taldean diziplina honetan borrokatzen zuen lehenengotakoa izan nintzen. 2017an lehiatutako Muay Thai txapelketan parte hartu nuen, eta egun hartako oso oroitzapen politak ditut. Harrezkero, Muay Thai txapelketa askotan parte hartu dugu garaipen ugari eskuratuz.

Martxoaren 30ean Euskadiko txapelketa jokatuko da Gasteizen eta bertan egongo gara 12 urtetik gora ditugun lehiakideekin. Aspaldian Muay Thaia asko lantzen ari gara eta lanean gogotsu gabiltza txapelketa honi begira. Emaitza edozein dela ere, maite dugun kirolarekin gozatuko dugu.

## GUARDIAKO BOTIKAK

**OTSAILA 28, BARIKUA**

**09:00-09:00**
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Iruazalruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**MARTXOAK 1, ZAPATUA**

**09:00-09:00**
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**MARTXOAK 2, DOMEKA**

**09:00-09:00**
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
**09:00-22:00**
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**MARTXOAK 3, ASTELEHENA**

**09:00-09:00**
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**MARTXOAK 4, MARTITZENA**

**09:00-09:00**
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**MARTXOAK 5, EGUAZTENA**

**09:00-09:00**
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**MARTXOAK 6, EGUENA**

**09:00-09:00**
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
**09:00-22:00**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

## ZORION AGURRAK

**GOZATU GOZOTEGIA**
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

### Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etorrri zaitez Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.



**Ekai**
Martxoaren 1ean, 6 urte.
Zorionak, **Ekai, zapatuan** 6 urte egingo dituzu. Mozorroa jantzi eta ospatuko dugu. Besarkada handi bat etxekoen partez.



MAÑARIA
**Urko**
Otsailaren 28an, 5 urte. Zorionak, **Urko**! Gaur esku bete urte ospatuko ditu Legorrako txikiak. Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez,
eta besarkada handi bat Abadiñotik.

## EGURALDIAREN IRAGARPENA




DURANGALDEA

**Zapatua, 01**
Min. **2º** Max. **9º**

**Domeka, 02**
Min. **1º** Max. **10º**






# INMOBILIARIAK

## ETXETXO INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
**www.inmoetxetxo.com**




**SAN INAZIO** 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. TERRAZA. Ganbara eta garajea.




**SAN INAZIO** 3 logela, 2 komun, eskegitokia eta egongela. 2 terraza. Garajea. Igerilekua.




**MATIENA** Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna eta sukalde-egongela.




**DURANGO** ATIKOA. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.




**ARKOTZA** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.Ganbara. Terraza. Garajea aukeran.

## AMBOTO INMOBILIARIA

Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**DURANGO**

**Askatasun etorbidea:** 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

**Pinondo:** Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

**Tabira:** 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

**BERRIZ**

**Berriz:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO**

**Atxondo:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

**LURSAILAK SALGAI**

**Tabira:** 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

**Iurreta:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

**BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**

**Abadiño**: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

**Berriz:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**Berriz:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

**Atxondo:** Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

**Mañaria:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**Mendata:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**BULEGOAK ALOKAIRUAN**

**ABADIÑO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

**GARAJE ITXIAK SALGAI**

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

**LOKALAK ALOKAIRUAN**

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

**LOKAL INDUSTRIALA SALGAI**

**Matiena:** 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## ISD Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
**www.inmoduranguesado.com**
inmoduranguesado@gmail.com




**DURANGO: Madalenoste:** 54 m2. Egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea) Etxebizitza altua eta argitsua. Leku onean kokatua. 12 m2-ko ganbara eta 18 m2-ko garaje itxia. Guztiz jantzia.




**DURANGO: Madalena:** 80 m2. Halla, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du ( ekialde-mendebalde-iparraldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta zerbitzuneak. Egoera onean. Berriztatua. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzak behar.




**DURANGO: Juan Antonio Abasolo:** 95, 25 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe erdiak kanpora ematen du ( ekialde- mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. 14 m2-ko ganbara. Jantzia.




**DURANGO: Anbrosio Meabe:** 117 m2. Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea) Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. EGOERA ONEAN. Ganbara eta garaje itxia.




**IURRETA: Uralde:** 66 m2. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Jantzia. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzak behar.

## Fernando Uribe AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

**BERRIAK**

**DURANGO**

**Artekale kalea:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=F**

**DURANGO**

**Askatasun Etorbidea:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

**Barrenkalea:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

**Barrenkalea:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**Bartolome Ertzilla kalea:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E**

**Frantzisko Ibarra:** 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 €/ E.E.Z=E**

**Juan de Olazaran:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**Komentu kalea:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

**Santikurutz Kalea:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

**ABADIÑO**

**Dendarikoa:** Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

**Eskolakoa:** Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**

**Txanporta plaza:** Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

**ATXONDO**

**Artekale 13:** Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €**.

**BERRIZ**

**Murgoitio auzoa:** Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

**Eitua:** Berreraikitzeko baserria lursailarekin. **350.000 €**

**GARAI**

**Momoitio auzoa:** Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

**IURRETA**

**Bixente Kapanaga:** Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

**IZURTZA**

**Elizalde auzoa:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

**GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO**

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

**LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI**

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

anboto
Lekuan lekuko.

LAU-HORTZA



JOSE JULIAN BAKEDANO

## Paul Preston eta Euskadi

Paul Preston (Liverpool, 1946) hispanista historialari britainiarra da. Bigarren Errepublika eta gerra zibila aztertu zituen, besteak beste. Bere liburuen artean, aipagarrienak *Arquitectos del terror*, *Un pueblo traicionado*, *Espainiako Gerra Zibila*, *Franco*, *El holocausto español*, *Las tres Españas del 36*, *El final de la gerra*, *La política de la venganza*, *La república asediada* eta *Las derechas españolas en el siglo XX*, besteak beste.

Liverpoolen jaio zen, Anfield auzoan, eta haurtzaro zaila izan zuen. Ama tuberkulosiak jota hil zen, Paulek bederatzi urte zituenean. Aitona-amonekin hazi zen gerraostean. Oxfordeko Unibertsitatean ikasia, historia irakaslea izan zen Readingeko Unibertsitatean, eta baita beste hainbat lekutan ere. Londresko Unibertsitatean Historia Garaikideko katedra eskuratu zuen.

Bada, 2017an, Madrilgo Debate argitaletxeak *La destrucción de Guernica* eleberri grafikoa kaleratu zuen. 1937ko apirilaren 26an, Europako kontzientzian sutan grabatuta geratu zen Gernika bonbardatua. Hiru orduko bonbardaketa eta metrailaketak hegaldietan. José Pablo Garcíak Prestonen liburu bat egokitu du, biñeten bidez. Binetek argi erakusten dituzte Legión Condorren taktikak, Francogaz egindako tratuak, Molaren obsesioa, eta George Steer kazetari berriemailearen lan ordainezina.

AKUILUA

# "Geroago eta maitatuago sentitzen naiz Zornotzan"

**PERUBELE** ZORNOTZAKO INAUTERIAK

Gaur jaitsiko da Perubele Zelaieta zentroko teilatutik, Zornotzako inauteriei hasiera emateko. Gaiteroen Banda lagun duela, jaiaz gozatzera gonbidatuko ditu zornotzarrak



**Aitziber Basauri** ZORNOTZA

Las Vegastik (AEB) Zornotzara etorri da Perubele, inauteriak sorterrian ospatzeko. Gaur ere, hitzorduari hutsik egin barik, alkandora hawaiiarra jantzita aurkeztuko da jendaurrean, ume zein nagusiak jai giroaz gozatzera gonbidatzera. Aitor Ormaetxea *Piru* (Zornotza, 1970) du laguntzaile leiala.

**Urteroko hitzorduari hutsik egin barik heldu zara Zornotzara.**

Bai! Artzain lanetan hastera joan nintzen aspaldi Amerikara, baina Las Vegasen amaitu nuen. Ez naiz Amerikatik aberastuta bueltatu ziren euskaldun haien eredu. Parrandazale fama izan dut beti, jai giroa gustatzen zait. Batez ere, Zornotzako inauteriak. Ba, 20 urtetik gora dira urtero migrazioa egiten dudala Las Vegastik Zornotzara, inauterietan. Gero, berriro bueltatzen naiz Las Vegasera. Oso ondo bizi naiz han! Zornotzako enbaxadorea naiz han.

**Ondoetorri beroa egiten dizute zornotzarrek?**

Bai! Baina hasierako urteetan nahiko krudelak izan ziren.

**Erre egiten zintuzten.**

Gaizkiletzat hartu ninduten, baserri eta ortuetan lapurretan egiten nuelakoan. Zegoen lekutik hartu baino ez nuen egiten, Belatxikietan ipinitako arrautzaren inguruan ipintzeko. Epaitu ondoren, surtan erretzera zigortzen ninduten. Baina enpatia sentitzen hasi ziren, eta gero maitatuago sentitu naiz.

**"ESANGO DUTENARI KASURIK EGIN BARIK, MOMENTUA BIZITZERA ANIMATU GURA DITUT HERRITARRAK"**

Parrandazalea baino ez naizela konturatu dira, eta geroago eta lagun gehiago ditut. Markeli eskerrak, mokoa eta hegoak mugitzen ditut, eta Mikelek galako trajea egin zidan. Hamar bat urte dira ez nautela erretzen, su artean agurtzen naizen arren.

**Zelan bizi ditu inauteriak Perubelek?**

Oso pozik! Jai giroan. Barikutik martitzenera giro itzela sortzen da herrian, eta jende asko ikusten dut mozorrotuta. Etorri gura dutenek Zelaieta zentroan aurkituko naute. Askok nirekin argazkiak atera gura izaten dute.

**Zorhontza duzue jaietan, Etxanoko hockey taldearen maskota Mirua da, eta inauterietan zu.**

Denak hegaztiak! Ala txoriburuak?

**Arau sozialak baztertzeko eta gehiegikerietarako egunak ei dira inauteriak. Iritzi horretakoa zara?**

Urtean zehar hainbat mozorro erabiltzen dugu, askotan beharrezkoak diren mozorrak. Ba, horrek bazter batean itzi eta norberak gura duen mozorroa, benetakoa, jantzeko aukera ematen dute inauteriek. Hori egitera animatu gura dut, jaiaz gozatzera eta ondo pasatzera.

**Inauteriek loraldi bat bizi dutela diote. Zer uste duzu?**

Esango nuke indarra hartzen hasi direla berriro. Nik neuk ez dut inoiz ere hutsik egin. Ezta pandemia sasoian ere. Herria hutsik topatu nuen, baina gaiteroek harrera egin zidaten. *Perubelain* izeneko bideoa ere egin genuen.

**Zein da zabaldu gura duzun mezua?**

Gure txikitasunean handiak garela. Bizi bat dugu eta topera bizi behar dugula, ume zein heldu izan. Esango dutenari kasurik egin barik, bizi dezagun momentua.

